



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abuztuaren 21a

88. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzekoa (8. or.).
- Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremurako mezenasgoari buruzko foru lege bat taxutu dezan. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra alda dezan. Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere iritzia eman dezan eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko nafar ekoizleen interesak defenda ditzan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, nazioko Gobernua premiatzen da hartu beharreko lege ekimenak eta parlamentarioak har ditzan, halako moduan non toki entitateek ez baitute aurrekontu egonkortasuna bete beharko, baldin eta desoreka hori COVID-19aren aurkako eta suspertze ekonomikoaren aldeko borrokarekin zuzenean lotutako zioei zor bazaie. Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztu du (23. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko formularik egokiena bila dezan, funts putreen eta paradisu fiskaletan jarduten duten enpresen presentzia mugatzeko zahar-etxeen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzen kudeaketan. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (25. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzeko du Espainiako Gobernuak eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak lortutako akordioa, zeinaren bidez toki entitateek Estatuari beren superabita lagako bailiokete. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (26. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ebalua ditzan COVID-19aren pandemia dela-eta errehabilitazioko terapiarik jaso gabe hilabeteak daramatzaten neska-mutiko nafar desgaituen ahalmen funtzionala eta narriadura-egoera. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (27. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu ditzaten. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (28. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko berariazko plan bat eta nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezar ditzan. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (29. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Juan Carlos Borboikoari Nafarroaren Urrezko Domina ken dakion. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (31. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gazteriaren Nazioarteko Eguna dela-eta abuztuaren 12an izan diren ospakizunekin. Eledunen Batzarrak onetsia (32. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erreibindikatu egiten baitu 2019ko azaroaren 28an onetsitako akordioa, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatu baitzuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa indargabetzera. Eledunen Batzarrak onetsia (32. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2020ko uztailaren 30ean egindako bilkuran, baliozkotu egin zuen 7/2020 Foru Lege-dekretua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez ohiz kanpoko neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren, eta erabaki zuen presako prozeduraz foru lege proiektu gisa izapidetzea. Foru Lege-dekretua 2020ko abuztuaren 6ko 85. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. eta 161. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea presazko prozeduraz izapidetu dadin foru lege proiektua, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren. (10-20/LEY-00013).

2. Osoko Bilkuraren esku jartzea foru lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia. Foru lege proiektuaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

3. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez ohiz kanpoko prebentzio neurri batzuk hartzen baitira koronarabirusaren (COVID-19a) osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

I

2020ko martxoaren 11n, COVID-19 izeneko gaixotasuna dela-eta, Osasunaren Mundu Erakundeak osasun publikoko larrialdi egoera deklaratu zuen, eta nazioarteko garrantzia eman zion.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko. Deklarazioak Estatuko lurralde osoari eragin zion, hasiera batean hamabost egun naturaleko epean, eta, ondoren, sei luzapen onartu ziren, Diputatuen Kongresuak baimenduta.

Alarma egoera luzatzen duen ekainaren 5eko 555/2020 Errege-dekretuak, 5. artikuluan, xedatzen du normaltasun berrirako trantsizio planaren aurreikusitako fase guztiak gaindituz gero, dagozkion probintzia, uharte edo lurralde-unitateetan alarma egoeran ezarritako neurriak ondorioz gabe geratuko direla. Gainera, 6. artikuluan arabera, autonomia erkidegoak dira erabaki dezaketanak, osasun eta epidemiologia irizpideei jarraikiz, beren lurraldeetan 3. fasea gainditu dela

eta, horrenbestez, "normaltasun berrian" sartuko direla.

Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzio, euste eta koordinazio neurri urgenteei buruzkoak, prebentzio neurriak hartzen ditu osasun krisiaren bukaera ofizialki deklaratzeko dena arte. Zentzu horretan, autonomia erkidegoen eskumenen esku uzten du aipatu neurriak ezartzea.

Nafarroako Gobernuak 2020ko ekainaren 19an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitatea normaltasun berrian sartzen dela deklaratu zen, eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko beharrezko prebentzio neurri batzuk eman ziren, normaltasun berri-rako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren.

Aipatutako erabakiaren 5. puntuan xedatzen denez, bertan ezarritako prebentzio neurrien etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egiten da, unean uneko epidemiologia eta osasun egoerara egokitzen direla bermatzeko.

II

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak txosten bat egin du COVID-19ak Nafarroan duen egoera epidemiologikoari buruz, eta bertan adierazi du uztailearen 9tik aurrera oso modu nabarmenean igo direla konfirmatutako kasu positiboak. Hala, azkeneko 14 egunetan eta azkeneko 7 egunetan metatutako intzidentzia-tasa aurten behatutako aldirian (2020ko 20. astetik 29.era) neurtutako altuena izan da.

Uztailearen 20ra arteko datuak (egun hori barne) Estatu osoko datuekin alderatuz gero, 100.000 biztanleko metatutako intzidentzia-tasa guztirakoari erreparatuta, Nafarroa hirugarren erkidegoa da, bai azkeneko 14 egunetan, bai azkeneko 7 egunetan, eta kasu sintomatikoei erreparatuta, berriz, bigarrena, bai azkeneko 14 egunetan, bai azkeneko 7 egunetan.

Azkeneko bi aste hauetan (28. eta 29. asteak) intzidentzia-tasa oso modu nabarmenean igo da 15 urtetik 29ra bitarteko adin tartean (zehazki, % 35 eta % 65, hurrenez hurren). 64 urtetik gorakoak, berriz, % 5 besterik ez dira izan.

Pertsona gehien ukitu duten agerraldiak elkarretaratze sozialen eremuan gertatu dira. Zehazki, kutsatu gehien eragin dituen agerraldia gaueko aisialdiari lotua dago, eta oso jende gazteari eragin dio, kontaktu estuak baitituzte. Horren ondorioz, txostenean adierazten da

azkeneko bi asteetan kutsaduren eremu nagusia gizarte eta aisialdiko jardueren lotua egon dela. 15 urtetik 29ra bitarteko adin tartean, 28. astean, kasu positiboan % 60 aurretik ezagutzen zen kasu baten kontaktuak dira, eta 29. astean, indize hori % 70era igo da.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ondorioztatzen du egoera epidemiologikoa aldatu dela azkeneko bi asteetan, batez ere azkeneko astean.

Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da zenbait prebentzio eta kontrol neurri ezartzea eritasunaren transmisioa murrizteko, batez ere gizarte harremanei eta aisialdiari lotutako inguruneetan. Hori kontuan hartuta, bidezkoa da presako neurri berariazko batzuk hartzea agerraldiak geldiarazteko eta agerraldi gehiago ez izateko, Nafarroako Foru Komunitateko biztanleen osasun publikoa arriskuan egon daitekeelako. Neurri horien artean, ikuskizun publikoetarako eta josteta jardueretarako lokalen funtzionamendu ordutegia murriztea dago, baita beste lokal batzuen ere (elkarte gastronomikoak eta peñak). Kontuan harturik gaueko aisialdia ez dela jarduera edo establezimendu horietara mugatzen, bidezkoa da, orobat, neurriak hartzea jende pilaketak saihesteko gaueko aisialdiari lotuta dauden beste mota bateko espazio publikoetan.

Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren ordutegi orokorra irailaren 23ko 201/2002 Foru Dekretuak arautzen du, establezimendu jakin batzuetarako. Foru dekretu horren 2. artikulua establezimendu horiek irekitzeko eta ixteko ordutegi orokorra arautzen du, eta Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari eta udalei eskumena ematen die, kasu jakin batzuetan, aldaketak egiteko eta ordutegi bereziak ezartzeko.

Ixteko orduari dagokionez, proposatzen da, oro har, horrelako establezimenduak 02:00etan ixtea. Horrela mugatuko da gazteak kutsatze-fokuen eraginpean egoten diren denbora; izan ere, kolektibo hori da halako establezimendu eta jarduerak gehien erabiltzen dituenak.

Ostalaritza eta jatetxe zerbitzuen esparruan, halaber, mugatzen da mahai bakoitzeko edo mahai multzo bakoitzeko gehieneko jende kopurua, hamar lagun biltzen ahalko baitira gehienek. Horrekin batera, mahaien edo mahai multzoen artean pertsonen arteko segurtasun-tartea mantendu beharri eusten zaio, kontaktua duten pertsonen taldeak mugatzeko eta, horrela, kutsatzeko arriskuak murrizteko.

Era berean, goian adierazi den bezala, beharrezkoa da mugatzea gaueko orduetan bide publikoetan, parke eta plaza publikoetan eta beste-lako igarobide publikoetan egiten diren bizikidetzatopaketak eta aisialdiko ospakizunak ("kale-zurruta" deiturikoa eta antzekoak), kontuan hartuta osasun publikoarentzat dakartzaten arriskuak. Izan ere, horrelakoetan, pertsonak kontrolik gabe pilotzen dira eta segurtasun neurriak eta urruntze fisikorako neurriak ez dira betetzen edo malgutzen dira, batez ere gauetan (02:00etatik 06:00ak arte). Ordutegi horietatik kanpora, jarduera hori 10 laguneko taldeetara mugatzen da.

Horrelako jokabideak, eta, horrenbestez, arrisku egoerak beste lokal mota batzuetara eramanez daitezten (elkarte gastronomikoetara eta peñetara, esate baterako), bidezkoa da horrelakoen jarduera modu berean etetea. Mugatzen dena ez da biltzeko eskubidea, lokal mota batzuen erabilera baizik, aurreikusten baita, establezimendu publikoak eta josteta jarduerak 02:00etan itxiz gero, gaueko aisialdia halakoetara eramanez daitezkeela.

III

Erreaktibazio ekonomikoari eta enpleguari laguntzeko presako neurri buruzko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-dekretuak neurri bat aurreikusten du zordun hipotekarioak babesteko, zehazki, haien higiezina hotel-jarduera bati, ostatu-etxe turistikoan jarduera bati edo bidai agentzietatik atxikia dagoen kasuetarako. Horren ondorioz, hamabi hilabete arteko luzamendua onartzen da zordun hipotekario horiek eta kreditu entitateek sinatutako finantza-eragiketarako.

Azken xedapen honen bidez, notario-agiriaren mailaz mailako kuotaren salbuespen araubidea ezartzen zaie hipoteka mailegu eta kredituen luzamendua eta hipoteka bermerik gabeko errentamenduen luzamendua formalizatzeko eskriturei, turismoaren sektorearentzako luzamendu hipotekarioa aplikatzearren ondorioz gertatzen direnean, horrela, zorrak luzatzeko neurri horiek hartzea erraztu eta sustatu nahi baita.

IV

Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren lehenengo artikuluan xedatzen da, osasun publikoa babesteko eta haren galera edo narriadura eragozteko, administrazio publikoetako osasun arloko agintariak, beren eskumenen esparruan, lege horretan aurreikusitako neurriak

hartzen ahalko dituztela, urgentziak edo preuzko osasun arazoiek hala eskatzen dutenean.

Bestalde, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak 26.1 artikuluan aurreikusten duenez, osasunerako berehalako arrisku ohiz kanpoko bat badago, edo susmatzen bada badagoela, osasun arloko agintariak egokitzat jotzen dituzten prebentzio neurriak hartuko dituzte, hala nola produktuak konfiskatu edo immobilizatzea, jarduerak bertan behera uztea, enpresak edo haien instalazioak ixtea, bitarteko materialen eta giza baliabideen interbentzioa, bai eta osasunaren ikuspuntutik justifikatuztat jotzen diren beste guztiak ere.

Azkenik, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak 54.1 artikuluan ezartzen duenez, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoan aurreikusitako neurriak ezertan ukatu gabe, salbuespenez eta aparteko larritasunak edo presak agindutako egoeretan, Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoetakoek eta Ceuta eta Melilla hirietakoek beharrezkoak diren neurri guztiak hartzen ahalko dituzte, zeinek bere eskumenen esparruan, legea betetzen dela ziurtatzeko. Ildo berean, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren arloan pertsonak dituzten eskubideei eta betebehari buruzkoak, 6.2 artikuluan xedatzen du ezen, transmititzekoak diren gaixotasunak kontrolatzearren, prebentzioko ekintza orokorrak egiteaz gainera, behar diren neurriak hartzen ahalko direla gaixotasuna duten pertsonak, haiekin harremanetan egon direnak eta haien hurbileko ingurunea kontrolatzeko, bai eta transmititzeko arriskua dela-eta beharrezkotzat jotzen diren neurriak ere, haien premiari buruzko ebidentzia zientifikoaren arabera.

Hori horrela, gaur den egunera arte, zenbait neurri hartu dira, bai Nafarroako Gobernuaren 2020ko ekainaren 19ko Erabakiaren bidez, baita Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduaren bidez eta uztailaren 17ko 35/2020 Foru Aginduaren bidez, non prebentzio neurri batzuk ezarri baitira, hurrenez hurren, COVID-19ak eragindako osasun krisiak iraun bitartean Nafarroako Foru Komunitatean maskarak erabiltzeari dagokionez eta aisialdiko etxabe, piperu edo antzeko lokalei dagokienez. Egungo egoera ikusita, beharrezkoa da, osasun arazoengatik, beste neurri batzuk hartzea establezimendu batzuk eta elkarre gastronomiko eta peñak ixteko ordutegiak mugatzeko, deusetan galarazi gabe, osasun egoeraren bilakaera ikusita, osasun arloko agintariak, arau honetan eta

osasan arloko eta osasun publikoaren arloko araudian jasotako gaikuntza erabiliz, beste neurri osagarri batzuk hartu ahal izatea transmisioaren arriskua gutxitzeko eta sor daitezkeen agerraldiak ugaltzen ez direla bermatzeko, hori guztia horren gaineko ebidentzia zientifikoarekin bat etorriz.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeiko uztailaren hogeita bian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATZEN DUT:

ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege-dekretu honen xedea da ohiz kanpoko presako prebentzio neurri batzuk hartzea koronabirusak (COVID-19ak) eragindako osasun krisiari aurre egiteko, normaltasun berrirako trantsizio planaren 3. fasea gainditu ondoren, ikusi baita egun hauetan epidemiak bilakaera okerra hartu duela Nafarroako Foru Komunitatean.

I. TITULUA Ohiz kanpoko neurriak gaueko aisialdiaren esparruan

2. artikulua. Ikuskizun publikoetarako eta josteta jardueretarako establezimendu batzuk ixteko ordutegia mugatzea.

1. Tabernak, kafetegiak, jatetxeak, taberna bereziak, ikuskizunetarako kafetegiak, josteta aretoak, ziberzentroak, bingo aretoak, joko aretoak, kirol aretoak, diskotekak eta dantzalekuak 02:00etan itxi beharko dira. Ixteko ordu hori ezin da atzeratu, eta ordu horretarako lokala jenderik gabe egon beharko da.

2. Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren ordutegi orokorra arautzen duen irailaren 23ko 201/2002 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 2. apartatuaren arabera establezimendu batzuei ixteko ordua atzeratzeko ematen zaien baimena bertan behera uzten da.

Eten egiten dira, orobat, 201/2002 Foru Dekretu horren 6.2 artikuluan xedatutakoaren babesean emandako baimenak (ordutegi berezia izatekoak), eta, gainera, ezin da horrelako baimen gehiagorik eman.

3. Terrazak eta hanka bakarrek mahaietarako guneak ixteko ordutegia ezin da artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako ordutik haratago eraman.

4. Aldi baterako instalazioetan eta instalazio eramangarri edo desmuntagarrietan egiten diren ikuskizun publikoek eta josteta jarduerak artikuluko honen 1. apartatuan ezarritako ixteko ordutegia bete beharko dute.

3. artikulua. Elkarre gastronomikoen eta peñen jarduera mugatzea.

Elkarre gastronomikoak eta peñak erabili gabe egonen dira 2:00etatik 6:00ak arte.

4. artikulua. Mahai bakoitzeko edo mahai multzo bakoitzeko gehieneko okupazioa.

Ostalaritzaren eta jatetxe zerbitzuen esparruan, pertsonen arteko segurtasun tartea gorde beharko da mahaien edo mahai multzoen artean.

Gehienez 10 pertsonak osatutako talde batek okupatzen ahalko du mahai bat edo mahai multzo bat, salbu eta denak bizikideak badira.

5. artikulua. Espazio publikoetan egiten diren bizikidetzatopaketak eta aisialdiko ospakizunak mugatzea.

1. Tokian tokiko udal ordenantzetan jasotzen diren berariazko debekuak deusetan galarazi gabe, debeku da bide publikoetan, parke eta plaza publikoetan eta bestelako igarobide publikoetan bizikidetzatopaketak eta aisialdiko ospakizunak egitea (botila-festak izenekoak eta antzekoak) 2:00etatik 6:00ak arte.

2. Aurreko apartatuan ezarritako ordutegitik kanpora, horrelako jarduerak gehienez 10 laguneko taldeentzat mugatzen dira, betiere segurtasun-tartea utzita.

Lehen xedapen gehigarria. Eraginkortasuna.

Foru lege-dekretu honen I. tituluaren ezarritako neurriek 15 egun naturaleko indarraldia izanen dute, indarra hartzen duen unetik aurrera, balizko luzapenak deusetan galarazi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Osasun agintarientzako gaikuntza, osasunaren eta osasun publikoaren araudiarekin bat.

1. Gaikuntza ematen zaio Osasun Departamentuko titularrari foru lege-dekretu honen 1. tituluaren ezarritako neurrien indarraldia luzatzeko, 15 egun naturaleko luzapenak aginduz, baldin eta horretarako justifikazioa osasun egoeraren bilakaera baldin bada, eta, betiere, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institu-

tuak horren gainean eman beharreko txostenean ezartzen duenarekin bat.

2. Gaikuntza ematen zaie Osasun Departamentuko titularrari eta Osasun Zuzendaritza Nagusiko titularrari ikuskizun publikoetarako eta josteta jardueretarako establezimendu iraunkorrak ixteko ordutegiak murrizteko, baldin eta horretarako justifikazioa osasun egoeraren bilakaera baldin bada eta neurriak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoari eragiten badio.

3. Gaikuntza ematen zaie toki entitate bakoitzean eskumena duten organoei ikuskizun publikoetarako eta josteta jardueretarako establezimendu iraunkorrak ixteko ordutegiak murrizteko, baldin eta horretarako justifikazioa osasun egoeraren bilakaera baldin bada eta neurriak beren lurralde eremuari eragiten badio.

4. Gaikuntza ematen zaie osasun arloko agintariei behar diren aldi baterako neurri osagarriak har ditzaten lokalizatuak dauden agerraldien hedapena saihesteko. Neurri horiek, betiere, proportzionalak izanen dira, eta ezinbestekoa den denboran aplikatzekoak.

Azken xedapenetako lehena. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina aldatzea.

Paragrafo bat gehitzen zaio Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 35.I.B).26 artikuluari (apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina), testu hau izanen duena:

“Mailaz mailako kuota hori aplikatzen salbuesita gelditzen dira, orobat, hipoteka mailegu eta kredituen luzamenduak eta hipoteka bermerik gabeko errentamenduen luzamenduak formalizatzeko eskriturak, turismoaren sektorearentzako luzamendu hipotekarioa aplikatzearen ondorioz gertatzen direnean (uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-dekretuaren 3. artikulutik 9.era bitartekoetan arautua)”.

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. apartatua ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko abuztuaren 1ean hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin. (10-20/LEY-00014).

2. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Bartzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2020ko irailaren 22ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru lege proiektu horri.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzekoa.

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea onetsita, Foru Komunitateak eskumen eskusiboak erabili zituen turismoa antolatu eta sustatzeko arloan, hari dagozkionak Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.13 artikuluari jarraikiz.

Foru lege horri aldaketa bat egin zitzaion apirilaren 6ko 6/2010 Foru Legearen bidez, zeinak zenbait foru lege aldatu baitzituen barne merkaturko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko. Aldaketa horrekin zenbait traba kendu ziren arauetatik, askatasuna murrizten zituztenak turismoko jarduerak ezartzeko eta gauzatzeko.

Turismoaren errealitatea, halakoxea baita gizartearen, kulturaren, lurraldearen, ekonomiaren eta teknologiaren aldetik, etengabe ari da eboluzionatzen eta eraldatzen. Hori dela eta, Nafarroako Turismoari buruzko Foru Legean zehaztutako helburuak betetzeko asmoz, hura aldatzeari ekin behar zaio berriz, helburua izanik, batetik, turismoa bultzatzea, enplegua eta aberastasuna sortzen duen sektorea baita, non kalitatea funtsezko balioa izanen baita, eta bestetik, jardueraren turistikoak ezarri eta horietan aritzeko oztupoak kentzen jarraitzea, eta, bukatzeko, foru lege horri eranstea behar diren xedapenak kaudimengabeziatik babesten duten baldintzen transposizioa bermatzeko (baldintza horiek Bidaia konbinatuei eta lotetsitako bidaia zerbitzuei buruzko 2015/2032 Zuzentaruaren 17. artikulutik 19.era aurreikusten dira).

Turismoari buruzko Foru Legearen aplikazio eremua handitzen da, bertan zenbait pertsona fisiko edo juridiko sartzearren, eragina dutenak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-eremuan egiten diren jardueren turistikoetan.

Funtsezko aldaketa bat egiten zaio III. tituluari ("Jardueren turistikoaren antolamendua"). I. kapituluaren ("Xedapen orokorrak"), eskaintza turistikoaren kanalaren edo plataformaren kontzeptuak definitzen dira, baita bidaia konbinatuen eta lotetsitako bidaia zerbitzuenak ere, segurtasun juridiko handiagoa ematearren. Halaber, bidaiarien babesa areagotzeko, eskatuko da hemendik aurrera establezimendu eta zerbitzu turistikoiei buruzko publizitate, informazio eta deskripzio oro erabilgarria, zehatza eta egiazkoa izatea, eta nahitaezkoa Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzio kodea ematea.

Berritzailea da arautzean Nafarroako turismo enpresek eta toki entitateek alde aurreko kontsulta bat egiten ahal dutela turismoaren arloko araudira egokitzeari buruz, jardueren bat egin baino lehen edo nahitaezko lizentzia bat eman baino lehen.

Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzeko araubidea aldatzen da, berritasun nagusiak izanik jatetxe arloko enpresek aukerakoa dutela inskribatzea eta enpresek ez dutela inskribatu beharrik beren jarduera nagusia turistikoa ez bada eta, 27 quinquies artikulua berria aurreikusitakoaren arabera, bitartekotza jarduera osagarriak egiten badituzte.

Zehatzago erregulatzen da zer ondorio duen erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak aipatutako erregistroan izena emateko eta zer ondorio, halaber, adierazpenean zehatza ez den edo gezurrezkoa den zerbait jartzeak edo zerbait falta izateak, edukia funtsezkoa bada.

II. kapituluaren ("Ostatu turistikoen jarduera"), ostatu turistikoen kontzeptua aldatzen da, oraingo errealitateari egokitzeko. Ostatu sailkapenean, etxebizitza turistikoa eta ostatu bereziak erantzen dira. Berebat, zehatzago erregulatzen da zer kasutan lekatzen ahal den, salbuespenez, ostatu turistikoa bat inskribatzeko edo kategoria jakin batean sartzeko eskatu beharreko gutxienezko betekizun eta baldintzetako bat bete zetik. Establezimendu turistikoen kalitate baldintzetan, haien irisgarritasuna erantzen da.

Hotel-establezimenduen sailkapenean, gaitz ematen da kategoria berriak ezar daitezkeen erregelamendu bidez. Definizio berriak ematen zaizkie turismoko kanpalekuei, turismoko aterpetxei eta landetxeei, bat datozenak egun ostatu horiek ematen dituzten zerbitzuekin. Halaber, definizio berri bat ematen zaie apartamentu turistikoei eta etxebizitza turistikoen klase berriari. Ostatu turistikoen modalitate berri bat erregulatzen da: ostatu bereziak. Establezimendu horiek, dituzten bereizgarrietatik edo salbuespenekoak izateagatik, ez dute toki egokirik foru legeak berariaz zehazten dituen gainerako modalitateen barnean.

Bestalde, III. kapituluaren ("Sukaldaritza"), kafe-tegiak eta taberna bereziak kentzen dira jatetxeen jardueraren modalitateetatik. Jarduera horrek jate-txeak bakarrik hartuko ditu bere barnean, baita geroago erregelamendu bidezko garapena izanzen duten beste modalitate batzuk ere.

IV. kapituluaren ("Bitartekotza turistikoa"), jarduera horren erregulazioa egokitzen da azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren laugarren liburuan ezarritakora (legegintzako errege-dekretu horren bidez onetsi zen Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako lege orokorraren testu batekina, aldatu dena abenduaren 21eko 23/2018 Errege Lege-dekretuaren bidez, barneko ordenamendu juridikoan txertatzearen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko azaro-

aren 25eko 2015/2302/EB Zuzentaraua, bidaia konbinatuei eta lotetsitako bidaia zerbitzuei buruzkoa). Horrek berritasun aipagarriak ekarri ditu bitartekotza turistikoen jarduerari dagokionez, bidaiariaren babesari dagokionez eta bidaia konbinatuak eta lotetsitako bidaia zerbitzuak merkaturatzeari dagokionez (figura hori foru araudian sartzen da).

Ezartzen da bidaia konbinatuak antolatu edo merkaturatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek edo lotetsitako bidaia zerbitzuak ematen dituztenek nahitaezkoa dutela berme bat eratu eta edukitzea, eta Nafarroako Foru Komunitateari dagokiola haren zenbatekoa eta modua zehaztea, besteak beste estal ditzan entitate antolatzailaren eta/edo merkaturatzailearen kaudimengabeziaren ondoriozko arrisku guztiak.

Aukera ematen zaie enpresa batzuei bitartekotza turistikoen jarduerak egin ditzaten, beren jarduera nagusiaren osagarri.

Gainera, figura berri bat arautzen da, barnean hartzeko, zehazki izaera turistikorik izan gabe, bidaiaren esperientzia hobetzen laguntzen duten establezimenduak edo jarduerak, eta, horretarako, VII. kapitulu berri bat erantzen da ("Interes turistikoko establezimenduak eta jarduerak"), non zehazten baita zer establezimendu eta jarduera jo daitekeen halakotzat eta zein den hala sailkatzeko modua.

IV. tituluaren ("Turismoaren alorreko eskubide eta betebeharrak"), Nafarroako Turismo Erregistroaren erregulazioa aldatu eta osatzen da, inskripzio kode bat eratzeko baita, jarduera eta zerbitzu turistikoen erabiltzaileen eskubideak bermatu daitezkeen eta funtsezko tresna bat izan dadin bidegabeko lehiaren, gezurrezko publizitatearen eta intrusismoaren kontrako borrokan sektore turistikoa.

Horretarako, betebeharrak berriak xedatzen dira enpresentzat, jarduera eta zerbitzu turistikoen publizitateari eta merkaturatzeari dagokienez, hala nola turismoaren arloan eskudun den departamentuari jakinaraztea enpresen datuak, baldin haien jarduera, zerbitzu edo establezimendu turistikoa merkaturatzen eta/edo publizitatzen badira Nafarroako Turismo Erregistroan inskripzio kodea adierazi gabe, inskripzio hori nahitaezkoa denean, edo, halaber, publizitate edo merkaturatze hori kentzea, kasua bada.

Arau-hausteen eta zehapenen araubideari dagokionez, aipatutako azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako errege-dekretuaren IV. liburuan xedatutakoaren arabera, aurreikusitako zehapen batzuk aldatzen eta beste batzuk erantzen dira,

ezarri diren betebeharrak berriekin bat, eta, bestalde, arau-hauste astun eta oso astunengatik ezartzen diren zehapenen zenbatekoak eguneratzen dira. Gainera, bi inguruabar berri eranstean dira zehapenak mailakatzeko.

Arauek araubide iragankor bat aurreikusten du foru lege honek indarra hartu baino lehen hasitako prozeduretarako, eta, horretaz gain, adierazten da zer epetan aitortu behar duten bidaia konbinatuak antolatzen edo merkaturatzen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek edo lotetsitako bidaia-zerbitzuak ematen dituztenek foru legean ezarritako bermeak eratu dituztela.

Bukatzeko, maiatzaren 4ko 141/1988 Foru Dekretua aldatzen da, Nafarroako Foru Komunitateko bidaia agentzien erregelamendua onesten duena, finkatu gogo baitira bidaia konbinatuak eta lotetsitako bidaia zerbitzuak antolatzen edo merkaturatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek eratu behar dituzten bermeen baldintzak, hori guztia bat etorri aipatutako 2015/2302/EB Zuzentarauarekin, aipatutako azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuan xedatutakoarekin eta autonomia-erkidegoen lantaldeak erabakitako zenbatekoekin (Turismoko Estatuko Idazkaritzak koordinatutako lantalde horretan Nafarroako Foru Komunitateak parte hartu zuen, eta Turismoko Zuzendari Nagusien Mahaiaik –egungo Turismoko Batzorde Sektoriala– aztertu zuen 2016ko apirilaren 13an).

Proiektu hau egitean aintzat hartu dira arauketa onaren printzipioak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan ezarriak. Hala, foru lege honek bere helburua betetzen du beharrezko eraginkortasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioekin, ez baitago beste biderik Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Lege indarduna aldatzeko, eta, halaber, beharrezko erregulazioa dauka hartu gogo diren neurriak lortzeko. Segurtasun juridikoa; izan ere, ordenamendu juridikoan txertatzen da eta ezartzen duen arau-esparrua egonkorra, auresangarria, integritua, argia eta ziurra da, ezagutu eta ulertzeko modukoa. Gardentasuna, tramitazioan aplikatu dena; izan ere, herritarren iritzia jaso da, baita ukitura gera daitezkeen subjektu eta erakundeena ere, eta horren berri eman zaio Nafarroako Turismo Kontseiluari, zeina Foru Komunitateko Administrazioak arlo horretan duen kontsulta- eta aholkularitza-organoa baita. Sinpletasuna eta efizientzia; izan ere, ez dira eranstean beharrezkoak ez diren karga administratiboak eta beste ba-

tzuk kentzen dira; eta irisgarritasuna; izan ere, lege-testuak horren berriazko aipamena dakar.

Foru legearen egitura hau da: artikulua bat, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

Artikulu bakarra. Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea aldatzen da. Hona testua:

Bat. 2. artikuluko a) letra aldatzen da. Hona testu berria:

“a) Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-eremuan jarduera turistikoa egiten duten pertsona fisiko edo juridiko guztiei, interes turistikoko establezimendu eta jarduerari, bertan kokatuta badaude edo egiten badira, eta establezimendu, jarduera edo zerbitzu turistikoaren merkaturatze edo publizitate jarduerak egiten dituzten kanal edo plataforma turistikoak, haiek egiten dituzten enpresek nahitaezkoa badute Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatuta egotea”.

Bi. 12. artikuluari beste bi apartatu gehitzen zaizkio, 6.a eta 7.a. Hona horien testua:

“6. Eskaintza turistikoko kanala edo plataforma: pertsona fisiko edo juridikoek, zuzenean edo hirugarrenen bitartez, jarduera edo zerbitzu turistikoak merkaturatzeko, publizitatzeko edo esteka bidez edo edukien ostatatze bidez erreserba errazteko dituzten sistemak.

7. Bidaia konbinatuak eta lotetsitako bidaia zerbitzuak: foru lege honen ondorioetarako, bidaia konbinatuak eta lotetsitako bidaia zerbitzuak dira halakotzat jotzen direnak azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 151. artikuluan eta sartuta daudenak haren aplikazio eremuan (legegintzako errege dekretu horren bidez, Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorraren testu bateratua eta beste lege osagarri batzuk onesten dira)”.

Hiru. 13. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta beste apartatu berri bat gehitzen da, 7.a. Hona hemen:

“2. Ezertan galarazi gabe aurreko apartatuan xedatutakoa, enpresa eta establezimendu turistikoek, jarduera hasi baino lehen, Nafarroako Turismo Erregistroan inskribaturik egon beharko dute, salbu eta hala xedatzen diren kasuetan, foru lege honetan ezarritakoarekin bat.

Edonola ere, eduki behar dituzte beste organismo batzuek, beren eskumenen arabera, eskatzen ahal dizkieten lizentziak eta baimenak”.

“7. Establezimendu eta zerbitzu turistikoaren publizitate, informazio eta deskripzio orok erabilgarria, zehatza eta egiazkoa izan behar du, eta gainera, Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzio kodea eman behar die erabiltzaileei, hori nahitaezkoa denean, baita behar adinako informazioa ere establezimenduen eta zerbitzuen ezaugarri buruz, erabiltzeko baldintzei buruz edo kontratatutako zerbitzuek dituzten prestazioei buruz, iruzurrik edo nahasketarik sortu gabe edo kontratatu nahi den establezimenduaren edo zerbitzuaren benetako izaera ezagutzea eragotzi gabe; hori guztia ezertan galarazi gabe publizitateari buruz eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsari buruz indarreko arauetan xedatuta dagoena”.

Lau. 13. bis artikulua berria gehitzen da. Hona:

“13 bis artikulua. Araudi turistikora egokitzeari buruzko alde aurreko aukerako kontsulta.

1. Pertsona fisiko edo juridiko batek establezimendu bat eraiki edo egokitu nahi duenean erabileratutako emateko edo jarduera turistiko bat gauzatzeko, aukera izanen du, edozein jarduketa edo tramite administratibo hasi baino lehen, kontsulta bat egiteko sailkapen turistikoari buruz, eta organo eskudunak bi hilabeteko epean gehienez erantzuten dio.

2. Kontsultarekin batera, memoria aurkeztu beharko da eta, kasua bada, proiektuak edo planoak, baita beste edozein datu edo elementu ere, turismoaren arloko administrazioak burubidea izan dezan lagungarriak izan daitezkeenak.

3. Nafarroako toki entitateek beren eskumeneko lizentzien tramitazioan egin dezakete kontsulta hori.

4. Kontsulta hori ez da loteslea izanen, eta behin betiko sailkapena organo eskudunak esleituko du kasuan kasuko prozedura administratibo tramitatu ondoren.

5. Kontsultari erantzunik ez emateak ez du esan nahi oniritzia ematen zaionik interesdunak proposatu duen sailkapenari, halakorik badago. Dagokion sailkapena aurreko puntuan xedatutakoa betez ezarriko da.

6. Kontsultari emandako erantzuna baliagarria izanen da baldin eta turismoari buruzko araudiak indarrean jarraitzen badu, kasuan kasuko proiektuari aldaketarik egiten ez bazaio edozein elementu eta ez badago kasuari aplikatu dakioken kontrako jurisprudentziarik”.

Bost. 14. artikuluko 1., 2., 4. eta 7. apartatuak aldatzen dira. Honela gelditzen dira idatzita:

“1. Nafarroako Turismo Erregistroa erregistro publiko administratibo bat da. Haren xedea da establezimendu turistikoak, enpresa turistikoak, enpresaz bestelako entitate turistikoak eta lanbide turistikoetan aritzen diren pertsonak inskribatzea.

2. Hauen zatitza nahitaezkoa izanen da inskripzioa:

a) Enpresa turistikoak, 16. artikuluan aurreikusitako ostatu jarduera egiten dutenean, eta haien establezimenduak.

b) Bitartekotza enpresa turistikoak, 25. artikuluan aurreikusitakoak, eta haien establezimenduak.

c) Enpresa turistikoak, 28. artikuluan aurreikusitako jarduera turistiko osagarri bat egiten dutenean, eta haien establezimenduak.

d) Beste enpresa turistiko, establezimendu eta pertsona batzuk, erregelamendu bidez zehazten denean lanbide turistikoetan ari direla.

Gainontzeko kasuetan, inskripzioa aukerakoa da. Edonola ere, nahitaezkoa izanen da Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzea turismo arloko laguntza eta dirulaguntzak eskuratzeko, salbu eta establezimenduak eta enpresak sortzeko direnak.

Bitartekotza jarduera osagarriak egiten dituzten enpresek ez dute Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatu beharrik haien jarduera nagusia turistikoa ez denean”.

“4. Aurreko apartatuan aipatzen den erantzukizunpeko aitortzea eta eskatutako dokumentazioa aurkeztea aski izanen da Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzeko beharkizuna betetzat emateko.

Erantzukizunpeko adierazpeneko edozein datu edo informazio, funtsean, ez bada zehatza edo faltsua bada, edo zerbait falta bada, edo ez bada aurkezten adierazpena edo eskatzen den dokumentazioa, aitortutakoa betetzen dela frogatzeko, ezin izanen da jarduera egiten jarraitu eta deuseztatuko da Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzioa, horren berri izaten den unetik aurrera, ezertan galarazi gabe horrek ekar ditzakeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Hori adierazten duen ebazpenak ezar dezake ezin dela inskribatu enpresa turistikoa, enpresaz bestelako turismo entitatea, establezimendua edo lanbide turistikoan aritzen den pertsona, 6 hilabe-

teko epean gehienez, ebazpen hori jakinarazten denetik hasita”.

“7. Enpresa edo establezimendu turistikoek uzten diotenean jarduera egiteari, haien titularrek behin betiko baja jakinaraziko diote, alde zurretik, turismoaren arloan eskudun den departamentuari. Behin betiko bajak ekarriko du Nafarroako Turismo Erregistroan egindako inskripzioa deuseztatzea.

Inskripzioaren xedeko jarduera bi urte jarraian baino luzeago utziz gero, inskripzioa ofizioz deuseztatuko da, interesdunari entzunaldia eman ondoan”.

Sei. 15. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Establezimendu bat ostatu turistikotzat hartzen da erabiltzaile turistikoek eskaintzen dienean, prezio baten truke, aldi baterako ostatua, zerbitzu osagarriak emanda edo eman gabe”.

Zazpi. 16. artikuluko 1. apartatuko e) eta f) letrak aldatzen dira eta g) letra berri bat eranstean zaio. Honela idatzita geldituko da:

“e) Apartamentu eta etxebizitza turistikoak.

f) Ostatu bereziak.

g) Erregelamendu bidez ezartzen den beste edozein”.

Halaber, 16 artikuluko 3. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“3. Turismo arloan eskudun den departamentuak, dauden inguruabarrak aintzat hartuta eta txosten teknikoak jaso ondoren, ostatu establezimendu jakin bat lekatzen ahal du, salbuespenez eta arrazoiak emanez, foru lege honetan edo hura garatzen duten erregelamenduetan gutxienez eskatzen diren betebeharrak tekniko bat edo batzuk betetzetik kategoria jakin batean inskribatu edo sar dadin.

Ulertuko da ostatuak egoera berezi batean daudela, besteak beste, kokatuta daudenean balio arkitektoniko bereziko eraikinetan, hirigune historikoan dauden eraikin birgaituetan edo eskualdeko arkitektura tradizional tipikoa duten eraikinetan.

Interesdunek eskatu behar dituzte lekopen horiek, eta frogatutako konpentsazio faktoreekin orekatuko dira, hala nola instalazioen balorazio bateratuarekin, zerbitzu osagarrien eskaintzarekin edo modalitatearen eta kategoriaren arabera legezko baldintza osagarriekin”.

Zortzi. 17. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Ostatu establezimendu guztiek indarreko araudia bete behar dute, hirigintzari, eraikuntzari, instalazioei, irisgarritasunari, osasunari eta kontsumoari, segurtasunari, higienerari eta ingurumenaren babesari dagokienez”.

Bederatzi. 18. artikuluko 1. apartatuari f) letra gehitzen zaio. Hona hemen:

“f) Erregelamendu bidez ezartzen den beste edozein”.

Hamar. 19. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Turismoko kanpalekutzat hartzen da behar bezala zedarririk, egokirik eta beharrezko instalazioez eta zerbitzuez horniturik dagoen eremua, helburu duena aldi baterako ematea jendeari, prezio baten truke, aire zabalean bizitzeko toki bat oporretarako edo turismorako, non egoteko elementu gisa erabiltzen baitira kanpadendak, karabanak, autokarabanak edo garraiatzen diren antzeko elementu batzuk”.

Hamaika. 20. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Establezimendu bat turismoko aterpetxetzat hartzen da erabiltzaile turistikoek, prezio baten truke, osatu zerbitzuak eskaintzen edo ematen dizkienean plaza baterako, gehienetan ohe askoko geletan, jatetxearen beste zerbitzu osagarri batzuk emanda edo eman gabe, eta aisialdiko, hezkuntzako, naturarekin harremanetan jartzeko edo kiroleko jarduerak egitea eskaini ahal izanda”.

Hamabi. 21. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Establezimendu bat landetxetzat hartzen da landa eremuan kokatuta eta haien estetika eta ezaugarriak eskualdeko arkitektura tradizionalak izanik, aldi baterako ostatua ematen denean prezio baten truke, zerbitzu osagarriak emanda edo eman gabe”.

Hamahiru. 22. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“22. artikulua. Apartamentu eta etxebizitza turistikoak.

1. Apartamentu bat apartamentu turistikoa da, haren erabilera eta luperketa lagatzen zaizkienean aldi baterako hirugarrenei ostatu turistikorako prezio baten truke, jabetza horizontalaren araubidekoa izanik, banaka edo blokeka, eta merkaturatuak edo publizitatuak egonik eskaintza turistikoaren kanaletan edo merkaturatzeko edo

sustatzeko beste edozein baliabidetan, eta altzariak eta ekipamenduak dituenean segituan erabiltzeko.

2. Etxebizitza turistikotzat hartzen dira txaletak, etxe bakartuak, etxe atxikiak edo antzeko higiezinak, merkaturatuak edo publizitatuak daudenean eskaintza turistikoa kanaletan edo merkaturatzeko edo sustatzeko edozein modutan, haien erabilera eta luperketa aldi baterako lagatzen zaizkiernean hirugarrenei, prezio baten truke, ostatu turistikorako, eta altzariak eta ekipamenduak dituztenean segituan erabiltzeko.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira apartamentu turistikoa eta etxebizitza turistikoa ustiatzeko moduei dagozkien betebeharrak eta baldintzak”.

Hamalau. 22. bis artikulua berria gehitzen da. Hona:

“22 bis artikulua. Ostatu bereziak.

1. Ostatu berezizat hartzen dira salbuespena izateagatik edo ezaugarri edo morfologia bereziagatik sailkatu ezin direnak araudian ostatu turistikoa establezimenduetarako zehaztutako gainerrako klaseetan, baldin eta turismo arloan eskudun den departamentuak kategoria hori ematen badie, erregelamendu bidez ezartzen diren betebeharrak eta baldintzei jarraituz.

2. Establezimenduak ez dira halakotzat joko araudian ezarritako klaseetako bat aplikagarri ez badute ez betetzeagatik kasuan kasuko klaserako eskatutako baldintza teknikoren bat edo batzuk.

3. Halaber, erregelamendu bidez zehaztuko da zer dokumentazio osagarri aurkeztu behar den ostatu bereziaren modalitateerako. Kasu guztietan, espedienteen jasota gelditu behar da ostatua berezia dela haren salbuespeneko ezaugarriak eta/edo baldintzak frogatuz, kontuan hartuta berrikuntza, proiektuaren orijinaltasuna edo antzeko irizpideak”.

Hamabost. 24. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“24. artikulua. Modalitateak eta sailkapena.

1. Jatetxe establezimenduen modalitate hauekoren bat izan dezakete:

a) Jatetxeak.

b) Erregelamendu bidez zehaztuko diren beste establezimendu batzuk.

2. Establezimendu bat jatetxe modalitatekoa izanen da jatetxe zerbitzuak ematen dituenean eta, erregelamendu bidez ezartzen diren gainera-

ko baldintzak beteta, janariak kontsumitzen direnean ordutegi zehaztuetan eta, lehentasunez, aparteko jantoki batean.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira jatetxe enpresen instalazioen eta zerbitzuen ezaugarriak, berezitasunak, zerbitzu motak eta kalitate baldintzak, modalitateen arabera, baita kategorien arabera sailkapena ere”.

Hamasei. 25. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Honako hauek hartzen dira bitartekotza turistikoko enpresatzat:

a) Bidaia agentziak.

b) Helburu dutenak biltzar, azoka eta konbentzioak antolatzea.

c) Erreserba-zentroak.

d) Erregelamendu bidez ezartzen den beste edozein”.

Hamazazpi. 26. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“26. artikulua. Bidaia agentziak”.

1. Pertsona fisiko edo juridikoak bidaia agentziazat hartzen dira haien jardura turistikoa nagusia bitartekotza denean zerbitzu turistikoa emateko edo antolatzeko, edo bidaia konbinatuak edo lotetsitako zerbitzuak emateko, eta horretarako bere baliabideak erabiltzen ahal ditu.

2. Erregelamendu bidez ezarriko dira bidaia agentziei eskatu beharreko baldintzak, modalitateak eta beharkizunak”.

Hemezortzi. 27. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“27. artikulua. Kontratuzko erantzukizunaren bermea bidaia konbinatuetan.

1. Bidaia konbinatuen antolatzaileak edo txikizkariak diren pertsona fisiko edo juridikoek, ezertan galarazi gabe 34. artikuluko i) letran ezarritakoa, berme bat eratu behar dute, zerbitzuak ematearen ondoriozko betebeharrak betetzearen erantzulea dena, oro har, bidaia konbinatu bat kontratatzen dutenen aurrean, arloan indarra duen araudiak ezartzen duenarekin bat.

2. Erregelamendu bidez zehaztuko dira haren zenbatekoa, modua eta gainerako beharkizunak”.

Hemeretzi. 27 bis artikulua gehitzen da. Hona edukia:

“27 bis artikulua. Kaudimengabeziaren aurreko bermea bidaia konbinatuetan.

1. Bidaia konbinatuen antolatzaileak edo txikizkariak diren pertsona fisiko edo juridikoak, gainera, beharturik daude kaudimengabeziaren kontrako berme bat eratzera, jardueran hasi baino lehenago, eta etengabe edukitzera, eskura egonen dena kaudimengabezia gertatu bezain laster, arloan indarra duen araudian ezarritakoarekin bat, eta erregelamendu bidez zehaztuko diren zenbatekoarekin, formarekin eta gainerako beharkizunekin”.

Hogei. 27. ter artikulua eransten da. Hona edukia:

“27. ter artikulua. Kaudimengabeziaren aurreko bermea lotetsitako bidaia zerbitzuetan.

1. Lotetsitako bidaia zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek berme bat eratu behar dute bidaiariengandik jasotzen dituzten ordainketa guztiak itzultzeko, baldin eta barnean hartzen dituzten zerbitzuetako bat ez bada gauzatzen kaudimengabeziaren ondorioz.

2. Arloan indarra duen araudiak ezarritakoarekin bat eratuko da berme hori, eta erregelamendu bidez zehazten diren zenbatekoarekin, formarekin eta gainerako beharkizunekin”.

Hogeita bat. 27. quater artikulua eransten da, honako edukiarekin:

“27. quater artikulua. Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatutako enpresek egiten dituzten bitartekotza jarduera osagarriak.

1. Nafarroako Turismo Erregistroan inskribaturik dauden ostatu turistikoaren enpresek eta turismo aktiboaren eta/edo kulturalaren enpresek bitartekotza lanak egin ditzakete, jarduera nagusiaren osagarriak, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzak eta beharkizunak betez.

2. Bidaia konbinatuak antolatzen edo merkaturatzen dituztenek edo lotetsitako bidaia zerbitzuak ematen dituztenek bete behar dituzte 27., 27 bis eta 27 ter artikuluetan aurreikusitako betebeharrak eta berme horiek eratu direla jakinarazteari buruzkoak.

3. Edonola ere, enpresaren jarduera nagusiaren xedeko bidaia zerbitzuak elementu eratzaitako bat izan behar du bidaia zerbitzuen konbinazioan edo lotespenean”.

Hogeita bi. 27. quinquies artikulua eransten da, honako edukiarekin:

“27. quinquies artikulua. Bitartekotza jarduera osagarriak, jarduera nagusia turistikoa ez duten enpresek egindakoak.

1. Enpresen jarduera nagusia turistikoa ez denean, enpresek, jarduera horren osagarri,

bidaia konbinatuak antolatu edo merkaturatu ditzakete, eta/edo lotetsitako bidaia zerbitzuak eman, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak eta beharkizunak betez, bai eta, kasu guztietan, 27., 27 bis eta 27 ter artikuluetan aurreikusitako betebeharrak eta berme horiek eratu direla jakinarazteari buruzkoak ere.

2. Enpresaren jarduera nagusi den bidaia zerbitzuak elementu eratzaitako bat izan behar du bidaia konbinatuan edo lotetsitako bidaia zerbitzuan”.

Hogeita hiru. VII. kapitulu berria eransten da III. tituluari, 29 bis artikulua daukana. Hona hemen edukia:

“VII. kapituluak. Interes turistikoko establezimenduak eta jarduerak.

29. bis artikulua. Interes turistikoko establezimenduak eta jarduerak.

1. Establezimenduak interes turistikokoak izanen dira prezio baten truke jarduerak egin edo zerbitzuak ematen dituztenean turismoa sustatzen laguntzeko eta erabiltzaile turistikoaren egonaldia errazteko Nafarroako Foru Komunitatean.

2. Jarduerak interes turistikokoak izanen dira laguntzen dutenean, prezio baten truke, turismoa sustatzen eta errazten dutenean erabiltzaile turistikoaren egonaldia Nafarroako Foru Komunitatean.

3. Honako hauek dira interes turistikoko jarduerak edo establezimenduak, besteak beste:

a) Museoak eta erakusketa eremuak.

b) Establezimendu ospetsuak, bereziak edo herrian sustraituak.

c) Artisautzako enpresen lantegiak, Nafarroako Artisauen Erregistroan inskribatuak.

d) Upeltegiak, olio-errotak eta nekazaritzako elikagaien antzeko enpresak.

e) Aisialdi eremuak, abenturakoak eta ingurumen hezkuntzakoak.

f) Jarduera gastronomikoak, kulturalak eta naturari lotutako beste batzuk, turismorako garrantzi berezia dutenak.

g) Erregelamendu bidez zehazten diren beste establezimenduak edo jarduerak.

4. Interes turistikoko establezimenduaren edo jardueraren kalifikazioa zigilu edo bereizgarri turistiko baten bidez deklaratu da, zeina turismo arloan eskudun den departamentuak emanen baitu, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzekin eta irismenarekin”.

Hogeita lau. 31. artikuluari h) letra gehitzen zaio. Hona testua:

“h) Establezimendu eta jarduera turistikoek Nafarroako Turismo Erregistroan duten inskripzio kodea ezagutzeko eskubidea”.

Hogeita bost. 34. artikuluko f) letra aldatzen da eta j) eta k) letra berriak eranstean dira. Eduki hau dute:

“f) Erabiltzailearen eskura jartzea posta-helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoko helbidea, haietan, bizitokia edozein dela ere, kexak edo erreklamazioak jarri ahal izateko, edo informazioa eskatzeko eskaintzen edo kontratazen diren zerbitzuen inguruan, arloan indarra duen araudiarekin bat.

Enpresa turistikoek ahalik eta lasterren erantzun beharko diete jasotzen dituzten erreklamazioei, eta, betiere, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko araudiak aurreikusten duen gehieneko epean”.

“j) Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzio kodea paratzea erabiltzaileek ikusteko moduko toki batean, ostatua edo zerbitzu turistikoak iragaritzen dituen publizitate mota guztietan, egiten edo ematen diren agiri edo faktura guztietan eta zerbitzu turistikoak kontratatzeke ezarri edo ezartzen den eskaintza turistikoaren beste edozein baliabidetan, euskarritan, sistematan edo kanaletan.

k) Turismo arloan eskudun den departamentuari jakinaraztea, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, nahitaezko bermeen eraketa eta baldintzak, bidaia konbinatuak antolatu eta merkaturatzeko eta lotetsitako bidaia zerbitzuak emateko, baita eratu behar den beste edozein ere, indarreko araudi turistikoarekin bat, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 166. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (legegintzako errege dekretu horren bidez, Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorren testu bateratua eta beste lege osagarri batzuk onetsi ziren)”.

Hogeita sei. 34 bis artikulua gehitzen da. Hona edukia:

“34 bis artikulua. Jarduera, zerbitzu eta establezimendu turistikoaren publizitateari eta merkaturatzeari buruzko betebeharrak.

Enpresa turistikoek, edo beste edozein motatakoek, jarduera, zerbitzu edo establezimendu turistikoak merkaturatzen edo haien publizitatea egiten dutenean paperean, webguneetan, kanaletan edo plataformetan edo beste edozein bidetan, betebeharrak izan behar dituzte:

a) Turismoaren arloan eskudun den departamentuari jakinaraztea enpresen titulartasunari eta helbideari buruzko datuak, enpresen jarduera, zerbitzu edo establezimendu turistikoak informazio edo merkaturatze kanaletan daudenean Nafarroako Turismo Erregistroko kasuan kasuko inskripzio kodea jaso gabe, hura nahitaezkoa baldin bada.

b) Enpresa, zerbitzu, establezimendu edo jarduera turistikoek Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzio kodea jasota ez dutenean, informazio, merkaturatze eta/edo publizitate kanaletan ematen den informazioa eta publizitatea kentzea, turismo arloan eskudun den departamentuak aginduzko errekerimendua egin ondoren, inskripzio hori nahitaezkoa baldin bada”.

Hogeita zazpi. 53. artikuluko f), h), i) eta q) letrak aldatzen dira, eta r) eta s) letra berriak eranstean. Hona hemen edukia:

“f) Turismo arloan eskudun den administrazioari ez komunikatzea edo ez jakinaraztea aldatu dela establezimenduaren titulartasuna edo araudiak eskatzen duen informazioa, non ez den komunikazio falta hori arau-hauste astuntzat sailkatzen 54. artikuluan xedatutakoarekin bat”.

“h) Kontratua suntsiarazi, aldatu edo lagatzeari edo horretan atzera egiteari buruzko arauak ez betetzea, edo eman beharreko zerbitzuak bertan behera uztea”.

“i) Uko egitea 34. artikuluko f) letran ezarritako informazioa emateari edo ez betetzea aurkeztutako kexei, erreklamazioei edo informazio eskaerei erantzuteko ezarritako gehieneko epea”.

“q) Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzio kodea ez sartzeko enpresa, establezimendu, jarduera edo zerbitzu turistikoak iragartzen dituen publizitatean, nahitaezkoa denean edozein baliabidetan, euskarritan edo sistematan”.

“r) Turismoaren arloan eskudun den administrazioari ez jakinaraztea eratu eta aldatu direla bitartekotza turistikoko jarduera dela-eta eskatzen diren bermeak eta zein diren haien baldintzak”.

“s) Oro har, turismoari buruzko araudian ezarritako baldintza, betebeharrak edo debekuak ez betetzea, baldin eta astunak edo oso astunak ez badi-ra”.

Hogeita zortzi. 54. artikuluko 1. apartatuko k) eta ñ) letrak aldatzen dira, eta o) eta p) letrak eranstean. Hona hemen edukia:

“k) Ez formalizatzea edo ez mantentzea aplikatu beharreko araudiak eskatutako bermeen eta aseguruaren indarraldia edo zenbatekoa”.

“ñ) Turismo arloan eskudun den departamentuari ez jakinaraztea enpresen titulartasunari eta helbide sozialari buruzko datuak, enpresen jarduerara, zerbitzu edo establezimendu turistikoak sartuta daudenean informazio edo merkaturatze kanaletan Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzio kodea agertu gabe, inskripzio hori nahitaezkoa denean”.

“o) Enpresa, jarduera, establezimendu edo jarduera turistikoaren publizitatea eta informazioa ez kentzea, aginduzko errekerimenduaren ondoren, informazio edo merkaturatze kanaletatik, Nafarroako Turismo Erregistroko inskripzio kodea jasota ez dagoenean, inskripzio hori nahitaezkoa baldin bada”.

“p) Arau-hauste arinetan berrerortzea”.

Hogeita bederatzia. 56. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Enpresa, establezimendu edo jarduera turistikoaren titularrak, pertsona fisikoak edo juridikoak izan, turismo arloko arau-haustearen erantzuleak izanen dira. Halakotzat joko dira, kontra-koa frogatzen ez den bitartean, beharrezko lizentzia edo erregistro administratiboan izena jasota daukatenak.

Arau-haustea denean lanbide edo jardueraren batean aritzea kasuan kasuko gaikuntza administratiboa eduki gabe, jardueran aritzen den pertsona fisikoa edo juridikoa edo emandako zerbitzuaren faktura ematen duena izanen da erantzulea.

54. artikuluko ñ) eta o) letretan aurreikusitako arau-hausteen kasuan, informazio edo merkaturatze kanalaren pertsona fisiko eta juridiko titularrak izanen da erantzulea”.

Hogeita hamar. 58. artikuluko 2. eta 3. idatzizatiak aldatzen dira. Honela gelditzen dira idatzita:

“2. Arau-hauste larriak 9.000 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

3. Arau-hauste oso larriak 75.000 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira”.

Hogeita hamaika. 59. artikuluar beste bi letra gehitzen zaizkio, i) eta j). Hona horien testua:

“i) Arau-haustearen oihartzun soziala.

j) Merkaturaren duen kokapena eta garrantzia”.

Hogeita hamabi. 60. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“60. artikulua. Isun hertsagarriak.

Aurreko artikuluetan aurreikusitako zehapenak gorabehera, turismo arloan eskudun den departamentuak isun hertsagarriak jar ditzake, ekintza arau-hauslea eteteko edo bertan behera uzteko, edo, kasua bada, falta dena zuzentzeko errekerimenduan zehaztutako epeak iragan ondoren, prozedura administratiboari buruzko araudian xedatutakoarekin bat. Isun horietako bakoitzaren diru-kopuruak ez du gaindituko egindako arau-hausterako finkatutako isunaren ehuneko hamar”.

Hogeita hamahiru. 62. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“62. artikulua. Printzipioak.

Turismo arloko zehapen ahala erabiltzeko, aplikatu beharreko araudi administratiboko printzipioei jarraituko zaie”.

Hogeita hamalau. 63. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Turismo arloko zehapen prozedura ofizios hasiko da beti, organo eskudunaren erabakiaren bidez, dela organoaren beraren ekimenez, dela goiko agintarien agindu baten ondorioz, beste organo batzuen arrazoibidezko eskaeraren ondorioz edo salaketa baten ondorioz”.

Hogeita hamabost. 65. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Zehapen prozedura tramitatu aurretik edo tramitatzearekin batera, ustezko arau-hausleari eskaini dakioke egindako kalteak konpontzea edo izandako irregulartasun administratiboak zuzentzea”.

Hogeita hamasei. 67. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Aurreko apartatuan finkatutako epetik kendu beharko dira interesdunari egotz dakizkiokeen gelditzeak, prozedura administratiboari buruzko araudian aurreikusitako etenaldiak eta foru lege honen 65. artikuluan aurreikusitako kasua. Halaber, kontuan hartu beharko dira ebazteko epearen luzapenak, legez ezarritakoaren arabera erabakitzen badira”.

Hogeita hamazazpi. 68. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Zehapen prozedurako ebazpenen kontra, interesdunek kasuan kasuko errekurtsioak jar ditzakete, administrazio-prozedurari buruzko araudian xedatutakoarekin bat”.

Lehen xedapen iragankorra. Abian dauden prozedurak eta legedi aldekoena aplikatzea.

Foru lege honek indarra hartu baino lehen hasi diren prozedurek bete beharko dute hasi zirenean indarra zuen araudia, tramitatzen ari diren zehapen prozedurek izen ezik; horietan, izan ere, arauhaulearen aldekoen den araudia aplikatuko da.

Bigarren xedapen iragankorra. Bermeak egokitzeko araubidea.

Bidaia konbinatuak antolatu edo merkaturatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek edo lotetsitako bidaia zerbitzuak ematen dituztenek aurkeztu beharko dute, hiru hilabeteko epean gehiezin foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita, turismo arloan eskudun den departamentuan, erantzukizunpeko adierazpen bat, 27., 27 bis eta 27 ter artikuluetan aurreikusitako eraketari eta baldintzei buruzkoa, eta horrekin batera, horien eraketa eta zenbatekoak frogatzen dituzten agiriak ere aurkeztu behar dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

1. Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko arau guztiak.

2. Xedapen hauek indarrrik gabe uzten dira espresuki:

a) 1., 2. eta 3. artikulua Nafarroako Foru Komunitateko Bidaia Agentzien Erregelamendua onesten duen maiatzaren 4ko 141/1988 Foru Dekretuan.

b) 1. artikulua Landetxeetan ostatatzea arautzen duen ekainaren 28ko 243/1999 Foru Dekretuan.

c) 2. artikuluko 1. eta 7. apartatuak Nafarroako Turismo Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen abuztuaren 25eko 502/2003 Foru Dekretuan.

d) 11. artikuluko 10. eta 13. apartatuak Turismo aktibo eta kultureko zerbitzuak ematen dituzten enpresen jarduerak arautzen dituen erregelamendua onesten duen abuztuaren 23ko 288/2004 Foru Dekretuan.

e) 1. artikuluko 1. eta 13. apartatuak Nafarroako Turismo Aterpetxeak Antolatzeko Erregelamendua onesten duen abenduaren 5eko 140/2005 Foru Dekretuan.

f) 20. artikulua Nafarroako Foru Komunitateko hotel-establezimenduen antolamenduari buruzko Erregelamendua onesten duen abenduaren 26ko 146/2005 Foru Dekretuan.

g) 39.2.b) eta 41. artikulua Nafarroako Foru Komunitateko turismoko kanpalekuen antolamenduari buruzko erregelamendua onesten duen martxoaren 30eko 24/2009 Foru Dekretuan.

h) 2. artikuluko 1. apartatua eta 17. artikulua Nafarroako Foru Komunitateko apartamentu turistikoen antolamenduari buruzko urriaren 26ko 230/2011 Foru Dekretuan.

i) 4. artikuluko b) letra, 6. artikulua, 9. artikuluko 2. apartatua, 21. artikulua, 21.a, 24.a eta "kafetegia" terminoaren aipamenak Nafarroako Foru Komunitateko jatetxe eta kafetegien antolamenduari buruzko erregelamendua onesten duen abuztuaren 28ko 56/2013 Foru Dekretuaren testu osoan.

j) 7. artikuluko d apartatua eta 12. artikulua Nekazaritza-turismoari buruzko maiatzaren 28ko 44/2014 Foru Dekretuan.

k) II. eranskina Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak abenduaren 23an eman 75/2013 Foru Aginduan, zeinak Nafarroako Foru Komunitateko jatetxe eta kafetegien plaka bereizgarrien ezaugarriak ezartzen baititu.

Azken xedapenetako lehena. 15. artikulua aldatzea maiatzaren 4ko 141/1988 Foru Dekretuan, zeinak Nafarroako Foru Komunitateko Bidaia Agentzien Erregelamendua onesten baitu.

15. artikulua aldatzen da maiatzaren 4ko 141/1988 Foru Dekretuan, zeinak Nafarroako Foru Komunitateko Bidaia Agentzien Erregelamendua onesten baitu. Honako testua izanen du:

"Nafarroako Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legearen 27., 27 bis eta 27 ter artikuluetan aurreikusitako bermeei dagokienez, pertsona fisikoek, eratura egon bidaia agentzia gisa edo foru lege horretan aurreikusitakoarekin bat gaitutako figuretako edozein gisa, bidaia konbinatuak antolatu edo merkaturatzen badituzte edo lotetsitako bidaia zerbitzuak ematen badituzte, modu honetan eratuko dituzte berme horiek, kasuan kasuko zenbatekoarekin:

a) Berme indibiduala: aseguru, abal edo beste finantza berme baten bidez.

Jardueraren lehendabiziko urtean, berme horrek gutxienez ehun mila euro berdindu behar ditu. Bigarren urtetik aurrera, berme horren zenbatekoak izan behar du, gutxienez, bidaia konbinatuen merkaturatzaileak edo txikizkariak edo lotetsitako bidaia zerbitzuak ematen dituenak aurreko ekitaldian bidaia konbinatuen eta lotetsitako bidaia zerbitzuen salmentagatik lortutako diru-sarreraren ondoriozko negozio bolumenaren ehuneko bost

adinakoa, eta, edonola ere, zenbatekoa ezin da ehun mila euro baino txikiagoa izan. Estaldura hori egokitu behar da arriskuak handitzen badira, bereziki bidaia edo zerbitzu horien salmenta nabarmenki handitzen bada.

b) Berme kolektiboa: bidaia konbinatuen antolatzaileek edo txikizkariak edo lotetsitako bidaia zerbitzuak ematen dituztenek berme kolektibo bat era dezakete legez eraturako entitate kudeatzaile edo enpresa elkarten bidez, ekarpenak eginez bermerako elkartasun funts batera. Berme kolektibo horren zenbatekoa izanen da, gutxienez, bidaia konbinatuen antolatzaileek edo txikizkariak edo lotetsitako bidaia zerbitzuak ematen dituztenek, banan-banan hartuta, aurreko apartatuarekin bat eratu beharko lituzketen ber-

meen batuaren ehuneko berrogeita hamar adinakoa. Funtsaren zenbateko orokorra ezin da inongo kasutan bi milioi eta bostehun mila eurotik beherakoa izan.

c) Bermeak bidaia konbinatu bakoitzeko: bidaia konbinatuen antolatzaileek edo txikizkariak edo lotetsitako bidaia zerbitzuak ematen dituztenek aseguru bat kontratatzen ahal dute bidaia konbinatuaren edo lotetsitako bidaia zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzeko”.

Azken xedapenetako bigarrena. Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. 2020ko urriaren 1eko 12:00ak arte luza-tzea Ingurumenean eragina duten jarduerak arau-

tzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezte-ko epea. Foru Lege proiektua 2019-12-13ko 49. NPAOn argitaratu zen. (10-19/LEY-00017).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. 2020ko urriaren 1eko 12:00ak arte luza-tzea Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duen Foru Lege proiektuari

zuzenketak aurkezteko epea. Foru Lege proiektua 2020-06-25eko 72. NPAOn argitaratu zen (10-20/LEY-00011).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremurako mezenasgoari buruzko foru lege bat taxutu dezan.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita landa eremurako mezenasgoari buruzko foru lege bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroak arazo larri bat dauka, lurraldearen garapen jasangarriari eraginen diona: landa eremuek populazioa galtzea.

Datuak argiak eta kezkarriak dira, galera azkar eta sendo ari baita gertatzen. Urriaren 23an, Europar Batasunaren “Aldaketa demografikoari aurre egite aldera erregioek kohesio-politika tresnak baliatzeari buruzko txostena” argitaratu zen. Dokumentu horretan, aldaketa demografikoa eta horrek jardueraren esparru guztietan –ekonomia, kultura, gizartea eta politika– dituen ondorioak jorratzen dira. Lau aldagai kontuan hartuz gero (populazio-dentsitate baxua, populazioaren

zahartzea, jaiotze-tasaren jaitsiera eta biztanleak etengabe galtzea), Nafarroaren zati handi bat ukitzen dute lehendabiziko hirurek, batez ere landa eremuan, eta toki jakin batzuetan laugarrena pairatzen dute.

Europar Batasunaren arabera, populazioa galtzeko arriskua dago kilometro koadro bakoitzeko biztanle-dentsitatea 12,5ekoa bada. Nafarroan bi eskualde daude horren oso azpitik: Pirinioak eta Pirinioaurrea, eta beste batzuk arrisku-atalase horretatik gertu daude: Arga, Zangoza eta Larraun.

Nafarroako Parlamentuan Ekialdeko Pirinioen Ponentzian lan egin da, orain ezarri eta gauzatu beharreko ekintza-plan baten bidez. 2020rako aurrekontu-lerroak planteatu dira, erabakitasunez ibiltzen hasteko eta hitzetatik ekintzetara igarotzeko.

Halere, lurraldean bertan egindako lanaz gain, Nafarroako Gobernuak zenbait neurri jarri behar ditu abian, gure herrietan bizi den populazio-galeraren egoera leheneratzeko eta arintzeko.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du landa eremurako mezenasgoari buruzko foru lege bat taxutu dezan, edo, bestela, onura fiskalak onets ditzan, landa eremua eta bertako biztanleen bizitza hobetzen duten proiektuetarako pertsona fisikoek eta enpresek egindako ekarpenek egiazko itzulkina izan dezaten eta, halatan, populazio-galerak ukitutako eremuetan proiektu gehiago bultzatu ahal izan daitezten.

Iruñean, 2020ko uztailaren 30ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra alda dezan.

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 207.2 eta 208.2 artikuluek ezartzen dutenez, bere borondate libreari egotz ezin dakioken arrazoi batengatik, bai eta bere borondate libreagatik ere, erretiro aurreratua hartzen duen pertsonari bere pentsioan erretiroa murrizteko koefizienteak aplikatuko zaizkio, langileari erretiroa hartzeko legez ezarritako adina betetzeko falta zaion hiruhileko edo zatiki bakoitzeko. Koefiziente horiek aldatuz doaz: kotizatutako 38,8 urte baino gutxiagoko % 1,875 eta % 2tik kotizatutako 44,5 urteko % 1,50 eta % 1,625era, hurrenez hurren.

Halatan, erregulazio horren arabera, % 8ra bitarteko murrizketak aplikatzen dira erretiroa hartzeko legez ezarritako adinera heldu aurreko urte bakoitzeko, halako moldez non zenbait kasutan % 40ra bitartekoa izan baitaiteke penalizazioa.

Gaur egun, Gobernuaren kalkuluen arabera, 531.472 erretirodun ukitzen dituzte inguruabar horiek. Batzuk gazte-gaztetan lanean hasitako per-

tsionak dira –14 urterekin zenbait kasutan–, bizitza osoa lanean eman eta gero erretiroa aurreratzea erabaki dutenak. Baina beste asko beren enpresetatik bota dituzten pertsonak dira, langabezia denbora batez egon ondoren eta lanik aurkitu ez dutenez erretiro aurreratua eskatu behar izan dutenak –ustez borondatez– bizitzeko diru-sarrerara batzuk izan ahal izateko, beren pentsioan penalizazio hori beren borondatearen aurka onartuta.

Arrazoizkoa izanen litzateke pertsona horiek, baldin eta 40 urte edo gehiago kotizatu baldin badituzte, penalizaziorik edo erretiroa murrizteko koefizienterik ez pairatzea eta, aitzitik, pentsio-sistemari behar adinako ekarpena egin diotela ulertzea.

Bestalde, penalizazio hori ez da bukatzen erretirodunak erretiroa hartzeko legez ezarritako adina betetzen duenean, ondoren ere mantentzen delako, eta horrek ez dauka logika handirik. Gerta daiteke beste pertsona batzuk baina urte gehiago kotizatu dutenak pentsio txikiagoa kobratzen egoitea, erretiroa lehenago hartzeagatik soilik.

Beharrezkoa da, hortaz, ekitateak hala eskatuta, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra aldatzea eta konparaziozko bidegabekeria hori konpontzea.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du egin beharreko aldaketak egin ditzan urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, halako moduan non interesdunak erretiroa bere borondatez aurreratu duen kasuetan nahiz langilearen borondate libreari egotz ezin dakioken arrazoi batengatik lanari utzitako kasuetan ez baitira aplikatuko lege horren 207. eta 208. artikuluetan ezarritako murrizketako koefizienteak, baldin eta 40 urteko edo gehiagoko egiazko kotizazio-denbora kreditatzen bada.

Egiazko kotizazio-denbora hori kreditatzearen ondorioetarako, ez da kontuan hartuko aparteko ordainsarien zati proportzionala, eta soilik zenbatuko da nahitaezko soldadutzaren edo ordezkotzako zerbitzuaren denbora, urtebeteko gehiengo mugarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du egin beharreko aldake-

tak egin ditzan urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, halako moduan non pentsiodunak erretiroa hartzeko legez ezarritako adina betetzen duen unetik aitzina ez baitira murrizketa-koefizienteak aplikatuko, baldin eta erretiro aurreratua borondatez hartu bada eta langileari legearen 205.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera erretiroa hartzeko legez ezarritako adina betetzeko falta zaion hiruhileko bakoitzagatik edo hiruhileko-zatiki bakoitzagatik murrizketa-koefizienteak aplikatu bazaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du egin beharreko aldaketak egin ditzan urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean, halako moduan non erretiro aurreratua hartu duten pertsonen –erretiroa borondatezkoa nahiz derrigorrezkoa izan– ez baitzaizkie aipatu murrizketa-koefi-

zienteak aplikatuko eta beren kotizazio-oinarriaren eta kotizatutako urteen arabera kalkulatu baidatzaie pentsioa, baldin eta besteren konturako langile gisa kotizatu badute araubide orokorrean, edo autonomoen araubidean, eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean kasuko aldaketak onesten diren unean 65 urte edo gehiago badituzte.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du proposamen honetan aurreikusitakoari ez diezaion eragin derrigorrezko erretiroari buruz hitzarmen kolektibo bidez onetsitako klausuletan ezarritakoak eta aplikatzekoa izan dadin, hitzez hitz, langileari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik erretiro aurreratuko kasuetan –207. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz– eta borondatezko erretiroko kasuetan.

Iruñean, 2020ko uztailaren 31n

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere iritzia eman dezan eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko nafar ekoizleen interesak defenda ditzan.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bere iritzia eman dezan eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko nafar ekoizleen interesak defenda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita bere iritzia eman dezan eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko nafar ekoizleen interesak defenda ditzan.

Navarra Suma talde parlamentarioak bere babesa ematen dio Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren Osoko Bilkurari, 6/2015 Legea, Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deiturena eta adierazpen geografiko babestuen, aldatze aldera Diputatuen Kongresuko EAJ-PNVren taldeak aurkeztu duen proposamenaren aitzinean. Proposamen horrek zuzenean eragiten die Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren egungo ereduari, araudiari eta funtzionamenduari, eta «zuzenbideko bide toles baten bidez egindako bereizketa-saiakera eta desjabetze politiko» bat dela esan izan da.

Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuarekiko independentzia politiko amestu hori lortuz gero, Eusko Jaurlaritzak kontrolatutako deitura berri bat izanen da Arabako Errioxa; hori bai, Errioxa mar-

karen izenari eta merkatuari uko egin gabe, Nafarroako mahastizainek eta upeltegiek hamarkadetan egindako lanaren kaltetan, batere kontuan hartu gabe beren jarrera horren ondorio sozioekonomikoak.

Navarra Sumak bere babesa ematen dio Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren Osoko Bilkuraren jarrerari; izan ere, "etiketatuan eremu geografiko txikiago bat (Arabako Errioxa) aipatuko balitz", kudeaketa beregaineko eredu oso bat sortuko litzateke, zeinean kontrolaren, ikuskapenaren eta zehapenaren arloko ahalmena «Arabako Errioxa Kontseilu Arauemailea»rena izanen bailitzateke. Kontseilu horrek erabakiko luke dena: kontra-etiketak, uztaren gaineko arauak, urtaldien kalifikazioa... Eta baitezpadakoa izanen litzateke: inork ere ezin izanen luke Arabako Errioxako ardoa egin Kontseilu horren kontrolik gabe.

Halatan, deitura bereki bat sortzeko saiakera arduragabeek huts egin ondoren, EAJk proposatutako aldaketa horrek Eusko Jaurlaritzaren eskutik utziko luke erabakitzeke ahalmena, Errioxa deitura osatzen duten gainontzekoak kontuan hartu gabe, baina handik atera gabe, horrek Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko nafar ekoizleei ekarriko lizkiekeen ondorioekin.

Beti da garrantzitsua –krisi egoera honetan are gehiago– Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuaren ekintza- nahiz kudeaketa-batasuna, kudeaketa eskusibotasunez esleitzea, babestutako ardoen kalitatea bermatzeko, ekoizleen eta kontsumitzaileen interesak bermatzeko.

Kontseilu arauemailea kalitate eta jatorri berme hori emateko moduan da gaur egun, Deitura osatzen duten hiru eremuetako bakoitzari (Arabako Errioxa, Goi Errioxa eta Ekialdeko Errioxa), non Nafarroako Foru Komunitateko upeltegiak eta mahastizainak sartzen baitira. Horrek besteengandik bereizteko tresna indartsu bat ematen die upeltegiei, baina baita konfiantza eta kalitate zigilu bat ere, lortzen asko kostatu zaiena eta ezin dena orain hutsaltzen utzi euskal nazionalisten gosegarriagatik.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere iritzia eman dezan, inplikaturako eragileekin bil dadin eta Errioxa Jatorri Deitura Kalifikatuko ekoizleen interesak defendatzen.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Mozioa. Horren bidez, nazioko Gobernua premiatzen da hartu beharreko lege ekimenak eta parlamentarioak har ditzan, halako moduan non toki entitateek ez baitute aurrekontu egonkortasuna bete beharko, baldin eta desoreka hori COVID-19aren aurkako eta suspertze ekonomikoaren aldeko borrokarekin zuzenean lotutako zioei zor bazaie.

YOLANDA IBÁLEZ PÉREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibález Pérez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez nazioko Gobernua premiatzen baita hartu beharreko lege ekimenak eta parlamentarioak har ditzan, halako moduan non toki entitateek ez baitute aurrekontu egonkortasuna bete beharko, baldin eta desoreka hori COVID-19aren aurkako eta

suspertze ekonomikoaren aldeko borrokarekin zuzenean lotutako zioei zor bazaie.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Udalen superabita Estatuari lagatzearen aurkako mozioa

Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioaren gobernu batzarrak onetsi egin du Gobernu zentralaren proposamena, udalek beren aurrezkiaren parte bat baliatu ahal izan ditzaten Estatuari 2020an eta 2021ean, gerakinak –denak– Estatuari lagatzearen truke. Udalgintza azken hamarkada hauetan bereizi izan duen adostasuna hautsiz hartu da akordio hori.

Berriz ere, toki administrazioa tutoretzapeko administrazio txiki gisa tratatzen ari dira, nahiz eta orain planteatzen den arazoaren muina izan, hain zuzen ere, toki entitateek beren lana egin dutela, finantza oreka eta gastu-araua errespetatu dituztela, defizita ekidin dutela eta, zenbait kasutan, superabit handia dutela.

Bada, moderazioz eta zorroztasunez jarduteko ahalegin hori egin eta gero, aparteko gastuak eragin dituen aro baten ostean eta aurrekaririk gabeko krisi baten atarian, Espainiako Gobernuak nahi du aurrezki hori guztia hari ematea, COVID-19arekin lotutako aferetan gastatu ahal izateko % 35 itzultzearen truke (gainerakoa, epeetan itzulita).

Arauk jada ezartzen du udalek beren diru-sarrerekin zer egin dezaketen eta zer ezin duten egin. Gobernuaren proposamena –borondatezko ekarpenez hitz egiten den arren– toki autonomiaren aurkako eraso bat da, nahiz eta Espainiako Konstituzioak berak ahalbidetzen duen finantza-egonkortasuna urratzea baldin eta natur-hondamendia, atzeraldi ekonomikoa edo Estatuaren kontroletik at dauden eta Estatuaren finantza-egoera nahiz jasangarritasun ekonomikoa edo soziala nabarmen kaltetzen duten aparteko larrialdi-egoerak gertatzen badira.

Proposamen horrek hustu egiten ditu udalen diru-kutxak, udal aurrezkiaren % 35 soilik erabiltzea baimentzen du, eta gainerakoa administrazio zentralarentzako epe erosoetan itzultzea planteatzen du. Ez gaude ados ehuneko 35 jaso ahal izatearen eta gainontzekoa 10 urtetan itzultzearen truke aurrezki guztiak lagatzearekin. Eta errefusatu egiten dugu transferentzia “borondatezkoa” dela esatea, zeren transferentzia ez egitearen ondorioa bailitzateke finantza-egonkortasunetik harago gastatu ezin izatea.

Gobernuari gerakinen transferentzia hori eginez gero, toki entitateak prekaritate-egoeran geratuko dira krisi-aro konplikatuari aurre egiteko, non toki entitateek beren baliabide guztiak behar izanen baitituzte aurrera egin ahal izateko, ekonomia suspertzeko ekintzetan inbertitzeko eta beren bizilagunei eta tokian tokiko enpresei laguntzeko.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Parlamentua toki autonomiarekiko errespetuaren alde dagoela dio, Konstituzioan hala aitortzen baita.

2. Parlamentuak errefusatu egiten du Gobernuaren proposamen oro, baldin eta horrek berekin badakar Estuari udalen superabita lagatzea, COVID-19ak zuzenean nahiz zeharka eragindako gastuei aurre egin ahal izateko.

3. Nafarroako Parlamentuak, bizi dugun salbuespen egoera ikusita, nazioko Gobernuak premiatzen du hartu beharreko lege ekimenak eta parlamentarioak har ditzan, halako moduan non, salbuespenez, toki entitateek ez baitute aurrekontu egonkortasuna bete beharko, baldin eta desoreka hori COVID-19aren aurkako eta suspertze ekonomikoren aldeko borrokarekin zuzenean lotutako zioei zor bazaie, udal superabitak Estuari laga behar izan gabe.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko formularik egokiena bila dezan, funts putreen eta paradisu fiskaletan jarduten duten enpresen presentzia mugatzeko zahar-etxeen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzen kudeaketan.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita legezko formularik egokiena bila dezan, funts putreen eta paradisu fiskaletan jarduten duten enpresen presentzia mugatzeko zahar-etxeen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzen kudeaketan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

CCOOk salatu duenez, azken urteotan gero eta handiagoa da inbertsio-funtsek esparru ezberdinetan duten presentzia. Enpresa-mota horiek, jakina, etekina bilatzen dute kosta ahala kosta, eta gerakin hori paradisu fiskaletara joan ohi da, enpresa-antolamendu opaku baten laguntzarekin.

Etxebizitza publikoaren esparrua, enpresena eta, orain, soziala, negozioa egiteko espazioak dira, non enpresa-mota horiek indarrez ari dira esku hartzen, baita Nafarroan ere.

Halatan, kezkarria baldin bada funts horiek enpresak eta etxebizitzak erostea, are kezkarriagoa da horiek zahar-etxeak eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzak kudeatzea. Gizartean hain garrantzitsuak diren gisa horretako esparruetan, administrazioek zenbait muga jarri beharko lituzkete. Izan ere, mugarik jarri ezean, etorkizu-

nean kalte eginen zaie zerbitzuaren kalitateari eta plantillen eskubideei.

Nafarroan, Domus VI inbertsio-funtsak zahar-etxe eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza ugari kudeatzen ditu dagoeneko. Kazetarien zenbait informazioren arabera, inbertsio-funts horrek paradisu fiskaletara eramanez ohi du irabazien zati handi bat.

Itunen bidez, hortaz, diru publikoa esku pribatuetara joaten ari da, eta zenbait kasutan paradisu fiskaletara iristen da azkenean. Halere, Nafarroako Gobernuaren lehentasun bat izan beharko litzateke enpresa-kultura etikoki arduratsua sustatzea. Ideia hori, berez, jasota dago Nafarroako araudian, batik bat Kontratu Publikoei buruzko Legearen bidez, zeinak klausula sozialak jasotzen baititu. Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean jasotako printzipioen artean, lehentasuna dauka “ funts publikoen erabileraren efizientzia handiago eta hobe” lortzeko.

Hain zuzen ere, orain ari da eztabaidatzen foru dekretu bat, zeinaren bidez arautuko baita Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemako zaharrendako, desgaitasuna dutenendako nahiz gaixotasun mentala dutenendako egoitza-zerbitzuen funtzionamendua (egunekoak eta ambulatorioak). Horregatik diogu orain dela horri ekiteko unea.

Nafarroak bilatu behar duen egoitza-eredua ez da Madrileko Erkidegoarena, non enpresa-mota horiek berebiziko protagonismoa baitaukate, ezpada mozkinak, zeinak, gainera, paradisu fiskaletara eta espekulatzailen eskuetara joaten baitira, kosta ahala kosta eta plantillen nahiz erabiltzaileen ginetik bilatuko ez dituen eredu bat.

Sakoneko hausnarketa bat egin beharra dago, enpresa-mota horiek zahar-etxeen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzen kudeaketa lortzeko buruzkoa. Eta beharrezkoa da, orobat, formulak bilatzea, gizartean garrantzitsuak diren esparruetan horien parte-hartzea mugatzeko.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legezko formularik egokiena bila dezan, funts putreen eta paradisu fiskaletan

jarduten duten enpresen presentzia mugatzeko zahar-etxeen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzen kudeaketan.

Iruñean, 2020ko uztailaren 6an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzan du Espainiako Gobernuak eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak lortutako akordioa, zeinaren bidez toki entitateek Estatuari beren superabita lagako bailiokete.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzan baitu Espainiako Gobernuak eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak lortutako akordioa, zeinaren bidez toki entitateek Estatuari beren superabita lagako bailiokete.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken urteotan PPK bultzatu eta UPNk babestu duten Aurrekontu-egonkortasunari buruzko Legearen aplikazioa eta lege horren garapenak dakartzan mugak aurrez aurreko eraso bat izan dira toki entitateendako, haien eskumenendako eta izaerarendako, hainbestekoa non udalgintzak kolpe latz-latzaz sufritu baitu. Lege horrek izaera nabarmen birzentralizatzailea dauka, eta neurri

handi batean murriztu eta mugatu du herritarren zerbitzura dauden administrazioen funtzionamendua, halako moduan non udal asko, praktikan, kontu-hartuta baitaude, herritarren beharrezan gorrienei erantzuteko ahalmenik gabe.

Krisiaren aitzakian, eragotzi egin zen tokiko gobernuek beren plantillak indartu ahal izatea desberdintasun gero eta handiagoei aurre egiteko, etxebizitza-larrialdiaren aurka borrokatzeko, modernizatze eta abar, eta bankuei ordaintzera bideratzen diren milioikako superabita sortzera behartuta ikusi zuten beren burua, prekarizazioak eta desberdintasunek gora egin bidenabar.

Indarrean jarraitzea ulertezina den legeria hori baliatuta, Espainiako Gobernuak eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak akordio bat lortu dute asteon, zeinaren bidez toki entitateek Estatuari beren superabita lagako bailiokete, itzulketari begira zenbait baldintza jarrita eta udalek horren portzentaje bat erabiltzeko aukerarekin.

Neurri hori udal autonomiaren aurkako beste eraso bat baino ez da, arlo ekonomikoan birzentralizazio are handiagoa dakarrena. Afera zinez larria da oraingoa bezalako testuinguru batean, non erakundeek –bereziki, udalek– beren baliabide guztiak eskura eduki behar baitituzte, beharrezan sozial eta ekonomikoei aurre egiteko, gizarte-kohesioa ziurtatzeko, tokiko ekoizpen-sarea zurkaizteko, langabezia murriztuko duen jarduera ekonomikoa sortzeko eta okerren pasatzen ari direnei laguntzeko.

Espainiako Gobernuak eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak gutxietsi edin dituzte Nafarroak toki araubidearen arloan dauzkan eskumen historikoak –bereziki, toki ogasunen gaineko-

ak-; izan ere, Nafarroako udalek inola ere ez lituzkete beren superabitek Estatuko gobernuaren esku laga behar izanen, ez daude-eta haren tutoretzapean.

Hori guztia dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzeko du Espainiako Gobernuak eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak lortutako akordioa, zeinaren bidez toki entitateek Estatuari beren superabita lagako bailiokete, eta erabaki horretan atzera egin dezan exigitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak udal autonomia errespetatu dadin exigitzen du, bai eta toki entitateek beren gerakina COVID-19aren krisitik heldu diren ondorio sozialak arintzera bideratutako politika publikoetarako baliatu ahal izan dezaten ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioa premiazten ditu Nafarroako toki araubidearen arloan dauzkan eskumen historikoekiko mespretxua zuzendu dezaten eta eskumen horiek

errespetatu dituzten, argi utzita Nafarroako toki entitateek inola ere ez diotela laga behar beren superabita Estatuko Gobernuari. Halaber, Nafarroako Gobernuak premiazten du hartu beharreko neurriak har ditzan jarrera hori aldezteko.

4. Nafarroako Parlamentuak denik eta modurik irmoenean exigitzen du Espainiako Konstituzioko 135. artikulua eta PPK eta UPNk onetsitako Aurrekontu-egonkortasunari buruzko Legea indargabetu daitezkeen, erabateko birzentralizazioa, tokiko autonomiarekiko aurrez aurreko eraso bat eta zorraren ordainketa herritarren beharrezan aurretik paratzea ekarri dutelako.

5. Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Nafarroako erakundeek erabateko burujabetza ekonomikoa izan dezaten beren zorpetze-maila nahiz defizit-muga erabakitzeko, bai eta beharrezan sozial eta ekonomikoak unean-unean betetzeko gerakinei zer erabilera eman ere.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 6an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiazten da ebalua ditzan COVID-19aren pandemia dela-eta errehabilitazioko terapiarik jaso gabe hilabeteak daramatzaten neska-mutiko nafar desgaituen ahalmen funtzionala eta narriadura-egoera.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiazten baita ebalua ditzan COVID-19aren pandemia dela-eta errehabilitazioko terapiarik jaso gabe hilabeteak daramatzaten neska-mutiko nafar desgaituen ahalmen funtzionala eta narriadura-egoera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari

ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

2015ean, UPNren Gobernuak Haurren Hartutako Kalte Zerebraleko Adituen Batzordea sortu

zuen, Osasuneko kontseilariaren foru agindu baten bidez. Adituen batzorde horretan, Nafarroan patologia horrek ukitutako neska-mutikoen familien elkarte –Hiru-Hamabi elkarte– zegoen.

Uxue Barkosen Gobernuak lan horrekin jarraitu zuen. Haren Gobernuak, Osasuneko kontseilariaren beste foru agindu baten bidez, adituen batzordea birdefinitu zuen. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak haurren hartutako kalte zerebralari buruzko dokumentu bat onetsi zuen 2016ko abuztuan, non zenbait hobekuntza jasozten baitziren kalitatezko arreta integral eta integratu bat emateko, haurren hartutako kalte zerebralak ukitutako neska-mutiko nafarren bizi-kalitatea eta autonomia hobetearren.

Dokumentu horretan, berariaz gomendatzen da familiek eskatu ohi duten eta adituen batzordeak beharrezkotzat jotzen zuen beharrian bat: “Opor sasoiaren tratamenduen aplikazioa mantendu behar da, sendagileak ematen duen aginduaren arabera”. Halere, lau urte joan dira eta ez da ezer aurreratu arlo horretan; aitzitik, egoerak okerrera egin du COVID-19aren pandemiaren ondorioz, martxoan eten egin behar izan baitziren desgaitasuna duten neska-mutikoen errehabilitazio-terapiak, eta bost hilabete geroago etenda daude oraindik ere.

Errehabilitaziorik gabeko hilabete hauek narriadura nabarmena ekarri du neska-mutiko horietako askoren kasuan, eta haiek eta haien familiek, ondorioz, autonomia eta bizi-kalitatea galdu dituzte.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du albait lasterren ebalua ditzan COVID-19aren pandemia dela-eta errehabilitazioko terapiarik jaso gabe hilabeteak daramatzaten neska-mutiko nafar desgaituen ahalmen funtzionala eta narriadura-egoera.

2. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du errehabilitazioak berriz has ditzan kolektibo horretan –arrisku handieneko kasuetan, berehala–, ohiko errehabilitazio-modalitatearen edo etxez etxeko errehabilitazioaren bidez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, pandemiak dirauen bitartean ez jartzeko berriz ere arriskuan desgaitasuna duten neska-mutikoen errehabilitazio-terapiak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du berehala presta dezan Osasun eta Hezkuntza departamentuen arteko protokolo bat, mediku-irizpidearen arabera eskola-ko opor sasoiaren eten ezin diren errehabilitazio-terapiak egiten jarraituko dela bermatuko duena.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak eta Gorte Nagusiak premiatzen dira Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu ditzaten.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak eta Gorte Nagusiak premiatzen baitira Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu ditzaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Europar Batasunak ezarri eta PSOEren nahiz PPren Espainiako Gobernuak onetsitako lege aus-terizidak indargabetzen ez diren bitartean (Konstituzioaren 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea), oso mugatuta egonen gara lehentasun sozialeko aurrekontu-politika bat aplikatzeko.

Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua- ren erreforma, zeina PSOEekin eta PPrekin batera soilik UPNk babestu baitzuen, interes orokorraren eta herritarren eskubide sozialen aurkako eraso bat izan zen eta da. Hortaz, artikulua hori indargabetzeko premia larria dago.

Bestalde, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa murrizketa drastikoak ezartzen ditu administrazio publikoen aurrekontu-politikoei begira. Aurrekontuak eta inbertsio publikoak kate mo- ztean lotzeko pentsatu eta taxututako lege bat da.

Nafarroako administrazio publikoek urteak daramatzate beren kudeaketa efizienteari esker lortutako diruzaintzako gerakinak eta aurrekontuko

superabitak baliatu ezinik, funts horiek beharrez- koak diren inbertsioetara bideratu ezinik, Estatuko Gobernuak eta Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak oraintsu lortu duten akordioak berriro agerian utzi duen moduan.

Orobat mugatzen du administrazio publikoen zorpetze-ahalmena; beraz, behar-beharrezkoa da muga hori desagerraraztea, are gehiago une honetan, neurri sozial eta sanitarioak finantza- tzeko, bai eta COVID-19ak eragindako hondamen ekonomikoa leheneratzeko.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzen ditu 2011n onetsitako Konstituzioaren 135. artikulua- ren erreforma indargabetzeari ekin diezaioten, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du indargabetze hori babestu eta eska dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzen ditu Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraun- kortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indargabetzeari ekin diezaioten, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du indargabetze hori babes- tu eta eska dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 10ean

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazte enple- guari eta ekintzailtzari buruzko berariazko plan bat eta nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezar ditzan.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Ba- tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Eche- garay jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gazte enpleguari eta ekintzailtzari buruzko berariazko plan bat eta nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale- an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeinaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko plan bat eta gazte talentudunak itzultzeko eta atxikitzeko plan bat ezar ditzan.

Zioen azalpena

Gazteen langabeziari buruzko datuek atseka-bea eragiten dute. UGTren urteko azken txostenaren arabera, Nafarroak 50.000 lanpostu baino gehiago galdu ditu gazte enpleguan 2008ko ekainetik (108.200 langile gazte zeuden) aurtengo ekainera arte (58.000 langile daude). Hau da, gazte enpleguaren % 46 inguru suntsitu da.

2020. urteari dagokionez, urtearen lehen erdian, lana galdu duten 1.900 pertsonetatik 1.400 16 eta 34 urte bitarteko gazteak dira, hau da, 4 gaztetik ia 3. Datu horiek 2019ko abenduakoa alderatuta, gazte langabetuak 11.700 izatetik 13.100 izatera pasa dira, hau da, % 12ko igoera gertatu da. Eta Nafarroako langabe guztiekin alderatuta (30.400), gazte langabeak % 43,09 dira (duela urtebete % 32,27 ziren).

Gazte-enplegu ugari suntsitu da; enplegu horrek bi ezaugarri nagusi ditu:

1.- Behin-behinekotasuneko tasa handia dago (lana duten gazteen % 48), zeina gazteen emantzipazioa atzeratzearen arrazoi nagusietako bat baita.

2. Lan-kontratuen iraupen eskasa.

Aurreko legegintzaldian Nafarroa izan zen Enplegu Plan bat –eta hortaz, gazte enpleguari buruzko berariazko plan bat– ez zeukan erkidego bakarra.

Une honetan dugun albiste bakarra da Parlamentu honek onetsitako mozioa, zeinaren bidez eskatzen baitzen Elkarriketa Sozialerako Kontseilurako deialdia egin zedila “lehenbailehen”, urtebeteko epean onetsi ahal izan zedin Nafarroako enplegu plan berria.

Hau da, bost urte daramatzagu planik gabe, eta horri beste urtebete gehi dakioke plana abian jarri arte. Ez da posible.

Langabezia da nafarren arazo nagusia. Eta bereziki, gazteena. Gazte batentzat etsigarria eta frustagarria da ikasketak bukatuta edukitzea eta lanik aurkitzen ez duelako gurasoen etxetik ezin alde egitea bere bizi-proiektuari segida emateko.

Guretzat, gaurko egoera eta gazteen kolektibolari eragiten dioten arazoak ikusita, funtsezkoa da

Gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko berariazko plan bat eta Nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat egotea, gure hauteskunde-programan jasotzen genuen bezala.

A.- Gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko berariazko plana:

Helburu nagusiak:

- Gazte enplegua eta ekintzaitza sustatzea.
- Enplegarritasuna hobetzea gazteen ezauzgarrikeriazko berariazko jarduketekin.
- Enpleguaren kalitatea hobetzea.
- Adin-tarteen araberako langabezia-tasen arteko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerraraztea.

Honako hauen bidez: orientabide personalizatua, banan banako ibilbideak, enpresen eta gazteen beharrezko bideratutako prestakuntza, gazteak kontratatzekeo pizgarriak –bereziki, kontratu mugagabeak–, unibertsitateetara eta LH Dualera bideratuta, enpresen munduaren eta gizartearen arteko harremanekin.

Kolektibo ahulenengan ere jarrita arretagunea, genero-arrakala, landa-ingurunea, erronka demografikoa eta gazte migratzaileak aintzat hartuko dituen ekintzekin, eta aldaketa sozial eta teknologikoak kontuan hartuta.

Hezkuntza-mundutik lan-mundura iragateko berariazko programa bat garatuta LHko ikastetxeekin eta unibertsitateekin batera.

Ekonomia eta Hezkuntza departamentuen eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren arteko lankidetzarako egitura bat sortzea, ekintza bateratutako planen bidez gazteen enplegarritasuna sustatzeko.

Gazte-ekintzaitza babestea enpresa-prestakuntzako ikastaroak doan emanez eta gazteek sustaturiko enpresen bideragarritasunari buruzko gastuetarako eta azterlanetarako dirulaguntzak emanez. Enpresa sortu berrien administrazio-izapideak sinplifikatzea, eta enpresa berriak sortzea ahalbidetuko duen politika fiskal bat baliatzea, berrikuntza eta gazte-ekintzaitza sustatuz.

B.- Gazte talentudunak itzultzeko eta atxikitzekeo plana:

Honako neurriak jasoko ditu, besteak beste: atzerrian dauden nafar gazteak Nafarroan kontratatzea ahalbidetuko duen laguntza-lerro bat ezartzea eta itzultzeko behar den informazioa emanen duen webgune bat sortzea, bai eta Nafa-

rraoko talentu gazteak gure erkidegoan lanean finka daitezten laguntzen duten beste neurri batzuk ere.

Erabaki proposamena:

1. Sei hilabeteko epean Gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko plan bat abian jarriko da.

2. Sei hilabeteko epean Gazte talentudunak itzultzeko eta atxikitzeke plan bat abian jarriko da.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Juan Carlos Borboikoari Nafarroaren Urrezko Domina ken dakion.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Juan Carlos Borboikoari Nafarroaren Urrezko Domina ken dakion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTU2

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Nafarroako Urrezko Domina guztira 35 pertsona edo entitateri eman zaie, 1982. urteaz geroztik.

1988an Nafarroako Urrezko Domina orduko Estatuburu Juan Carlos I.ari eman zitzaion.

Aipatu domina emateko hainbat irizpide erabiltzen dira, hala nola herritarrek izaera horrekin izandako jarrera eredugarria, gizartearen balio demokratikoak zabaltzen eta hedatzen laguntzea, demokrazia eta elkartasun arloko ekintzak bultzatzea, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat eratzea bilatzen duten ibilbideak edo Nafarroaren irudia kanpora begira sustatzea.

Saritutako Juan Carlos Borboikoa ikertzen ari dira, komisio milioidunak jasotzearekin lotutako ustelkeria-delituen aiora, eta balizko jarduera horiek jarrera eredugarria izatetik oso urrun daude.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Juan Carlos Borboikoari 1988an eman zitzaion Nafarroaren Urrezko Domina ken dakion.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Gazteriaren Nazioarteko Eguna dela-eta abuztuaren 12an izan diren ospakizunekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Gazteriaren Nazioarteko Eguna dela-eta abuztuaren 12an izan diren ospakizunekin.

2. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroako gazteriarekin duen konpromisoa, gure Foru Erkidegoaren oraina eta etorkizuna baita, eta gazte-politikak sustatuko ditu, krisi sozial eta ekonomiko hau modu duinean suspertzen laguntzeko, gure gazteek borondatez parte hartzen eta laguntzen duten gizarte-mugimenduen, toki-erakundeen, auzoen eta ikasketa-zentroen eskararak entzunda.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du komenigarria dela Nafarroako Gobernuak lanean jarraitzea abian

dauden gazte-politikak sendotzeko eta gazteentzako enplegu-politika aktiboetan sakontzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako gazteriari eragiten dioten politikak egiteko prozesuetan Nafarroako gazteriaren parte-hartzea bermatuko du, honako hauek barne: ikuspegi intersektionala, zaintzarako eta bizitzen iraunkortasunerako politika publikoak eta indarkeria matxisten aurkako neurriak.

5. Nafarroako Parlamentuak komenigarritzat jotzen du Osasun Departamentuak gure gazteei zuzendutako osasun mentaleko estaldura zabal-tzen jarraitzea genero-ikuspegitik, jakinik emakume gazteek estresa eta antsietatea izateko joera handiagoa dutela, etxeko lanak eta zaintza-lanak beren bizkar izaten baitira.” (10-20/DEC-00068)

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erreibindikatu egiten du 2019ko azaroaren 28an onetsitako akordioa, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatu baitzuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa indargabetzera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak erreibindikatu egiten du Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 2019ko azaroaren 28an gehiengoz onetsitako akordioa, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatu baitzuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa indargabetzera, toki entitateek egun pairatzen dituzten murrizketen sorburu eta arrazoi izateagatik.

2. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Nafarroako udalei, beren autonomiaren defentsan, Espainiako Udalen eta Probintzien Federa-

zioaren eta Gobernu zentralaren arteko akordioa baztertzea eta gerakin guztiak libra daitezzen eskatzera, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren aurrean gizarte eta ekonomia larrialdiei aurre egiteko.

3. Nafarroako Parlamentuak komenigarritzat jotzen du Foru Gobernuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin (FNMC) koordinatuta, konponbide bat bila dezan Nafarroako toki entitateentzat, Nafarroako Foru Komunitateak toki ogasunen gainean dituen eskumen propioen esparruan. (10-20/DEC-00069)

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias